

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 23a / 658. zenbakia




**AITZOL LAZKANO**  
EUSKADIKO TXAPELKETAN  
BURU-BELARRI

Pilotari arrasatearrak Uarkapen  
jokatuko du bihar, zapatua, 12:30ean

ORAIN ETA HEMEN: OLANDIXOKO TUNELA/6 • KIROLA: OINTXEK BI GARAIPEN SEGIDAN/11

ARGAZKIA: XABIER URZELAI. AZALA: ALEX AZKARATE

**EDERTASUN GIDA/24**



# GOIENAN HERRIZ HERRI: ARRASATE

Inazio Lakuntza, Arrasateko alkatearekin berbetan

**Martitzenean, urtarrilaren 27an**  
20:30ean

**Aurkezlea:**  
Alberto Gorritiberea

**Parte hartzeko telefonoa:**  
943 71 23 93

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

GOIENAN HERRIZ HERRI  
Babeslea:



## KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Garagartzan ortuek jartie?



**INMACULADA GARCIA**  
Langillie



**GREGORIO FRANCES**  
Langillie



**NICOLAS ARAZURI**  
Jubilaue



**ANGEL CALLEJA**  
Jubilaue



**FELI BESGA**  
Langillie



**IGNACIO DE LA CRUZ**  
Jubilaue

Idea ona dala pentsetan dot. Hala eta be, Garagartza urrin dauela uste dot. Gaur egun dauzen ortuek legalizau eta txukun jartie be beste aukera bat izengo litzake, ala?

Idea ona dala uste dot, baiñe ortuek benetako biherria daukienendako izen biherko litzakez. Diru kontuetan larri dabitzenei ortu bat emutie idea ona da; baiñe biherrik ez daukonai...

Neuk ondo ikusten dot hori. Jente nagusixe tabernetan sartute egoten da, eta ortuek eukittie idea ona da. Ez jatena gustetan da danon erraminttak gela bakarrien gorde biher izetie.

Neuri ondo pentsetan jat. Garagartzan terrenuek badauz, han egin daixiela. Ezin dana egin da txabolak gaur egun dauzen moduen euki: plastikuek, txatarrie... Dana zikinkerixie.

Argi dauena da gaur egungo ortuek ezin dauela bardin jarraitu. Auzuei zikin itxurie emuten dutzie; Makatzenan, adibidez. Iku-si egin biher Garagartza-kuek ze esaten dauen.

Idea ona da, baiñe Garagartza urrin dauela pentsetan jat. Autobuse jarten badaue, edarto. Argi dauket oingo ortuek kendu egin biherko leukiela, horreik arratoi lekuek die-eta.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK UDALTZAIN BATZUEN JARRERA** Arrasatear batek Lora-mendi inguruan aparkatu zuen autoa, espaloi gainean, une labur baterako. Beste lekurik ez zegoen eta, alboan zegoen udaltzain batengana jo zuen, baimena eskatzera. Hark bidali egin zuen; egun berean, Grupo San Juanen auto mordoa ikusi zituen espaloi gainean. Udaltzaingora jo zuen, baina modu txarrez hartu zuten. Horra hor haren kexua.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

### Garibaiko aparkalekuak

Oraingo astean hasiko dituzte Garibaiko lur azpiko aparkalekuak egiteko lanak.

KULTURA / 13

### Oskar Aranari elkarrizketa

Oskar Arana debagoiendarrak Jokin Zaitegi lehiaketa irabazi du. Elkarrizketa egin diogu.

ZAHARRAK / 17

### Bainuetxe programa

Dagoeneko abian da erretiratuak bainuetxeetara joateko Imsersok antolatzen duen programa.

## ASTEKODATUA

# 104

### ERRETIRATU ITALIARA JOANGO DIRA MARTXOAN

Santa Marinako Toki Argi erretiratu elkarteak Italiara txangoa antolatu du, eta guztira 104 erretiratu joango dira txango horretara. Zortzi egun egingo dituzte bidaia horretan.

## BESTEKEESANA

**“Bakoitzak izango du bere juzkua borroka armatuaz (...). Garrantzitsuago da guztiok esatea**

**hobesten dugula borroka armaturik gabeko egoera elkarlanerako. Uste dut jarrerara horretara bil daitekeela jende asko. Eta, aldiz, antzua derizot gaitzespen bila ibiltzeari (...). Bestalde, ez da ETaren borroka armatua gaitzespena mereziko lukeen jarduera bakarria. GAL edo presoen sakabanaketa ez dira preziso erudugarriak etiketaren aldetik, bi adibide besterik ez aipatzearren. Antzua litzateke horien kondena exijitzea ezertan hasteko (...). Bistan da zenbateraino pozoitzen duen jarduera politikoa borroka armatuaren kontuak (...). Joko hori dela-eta, irteerarik gabeko bidean daude sartuta hainbat kontu potolo”**

**MIKEL IRIZAR**  
‘ARGIA’/04-01-11

## HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



### Urkuluko urak

**O**inaztarria, instalazio elektriko zaharkituak edo tximinia auskalo noiztik itoak direla eta gure baserriak errauts bihurtzen ari diren honetan, erruz ugaritu dira han eta hemen estilo basko-ko txaletak. Jendeak gura du bizi pake santuan, naturarekin bat egin eta harremanetan sartu, goizean kuartoko leihoa zabaldu eta kurriloen kantuz gozatu, garoaren umean larrugorritan txitxilipurdi egin, casero-en eskandalurako, gero BMWan ofizinara joan aurretik.

Kontsumitzaileon aspirazino guztiz bidezko, are gehiago, legezkook ase nahian, hona hemen, lauoinan, tropelean, badatoz, diren agintari, konstruktore, bankero eta enparauak tronpeta jotzen: “lasai mutilak! mila txalet aizue! Bedoñan hasi eta Araotzeraino”. Aozarazaraino esan gurako dok” -besteak, “tea tea tea, behin hasita...” Operta eta demanda.

Leintzarrontzat pelikuletako amerikanoen tankeran bizitzeko aukera aparta. Prensabanatzaile bizikletariak jaurtitako diariovasco-a parterrean, esnebanatzaile txirrindulariak utzitako botila parean portxean, plataneroa mutikoaren logelako leiho

**“Leintzarrontzat pelikuletako amerikanoen tankeran bizitzeko aukera aparta izango da”**

parean, ihes egin dezan gauze Larrinoko English Collegeko lagunekin porroak erretzera, bizikletan. Cool!  
Bowling-a ere egin dezatela, flotantea, pantanoaren erdi-erdian bolak gustura arraskatzeko, horri esaten zaio

ozio. Golf zelaia berriz, Degurixan, txabolismo gehiagorik ez faborez XXI. mendean; eta abiadura handiko funikularra, golf makilak hartu eta igotzeko Ugastegin gora, mozolokeriaren gailur altuenetarantz kristoren ostian. Progresoa jode, progresoa!

Norbaitzuen kontu korronteek bai galanta progresoa, horri esaten zaio negozio. Gure baserriak, errauts, haizeak eramango ditu.

**Arrasate**  
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale.

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 23**  
Zabala, Zarugalde 42. .... 943 77 16 30
- ZAPATUA, 24**  
Azkoaga, Ferrerías 1. .... 943 79 15 15
- DOMEKA, 25**  
Azkoaga, Iturriotz 17. .... 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 26**  
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. .... 943 79 22 26
- MARTITZENA, 27**  
Irizar, Erguin 11. .... 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 28**  
Amezua, Santamaina 32. .... 943 79 09 74
- EGUENA, 29**  
Español, Araba etorb. 14. .... 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 30**  
Ruiz, Maala 31. .... 943 79 14 09

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00  
Igalatorioa. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. .... 943 79 39 00  
Emakumeak. .... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea. .... 943 79 90 11

- LARRIALDIK**  
SOS Delak. .... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA. .... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua. .... 943 46 11 11  
Astelenehenetik  
egubakoitzera. .... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan. .... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelenehenetik  
egubakoitzera. .... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. .... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. .... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. .... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak. .... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate. .... 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**  
Udal taldea. .... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. .... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea. .... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua). .... 943 79 09 00  
Argindaira (Iberduero). .... 943 12 01 62  
Gasa. .... 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak. .... 943 79 12 22  
PESA. .... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza. .... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza. .... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. .... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |   |  |
|---|--|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                  | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| <b>Domeka</b><br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)                     | <b>Domeka</b><br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                               | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| <b>Domeka</b><br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz) | <b>Domeka</b><br>11:00 San Isidron (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)                                 |
| <b>12:30 (gaztelaniaz)</b><br>19:00 (gaztelaniaz)   | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)                    |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                  | <b>Domeka</b><br>12:00 (gaztelaniaz)   |
| <b>Domeka</b><br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)                                  |  |

**OHARRAK**

**SAN FELIPE APOSTOL**  
Etzi, domeka, San Felipe Apostolek urteroko batzar orokorra egingo du Amaia Udal Antzokian, 12:15ean. Hori baino lehenago, hildakoen aldeko meza egingo dute San Juan Bautista elizan, 11:00etan.

**EGUBAKOITZETAKO ZINEKLUBA**  
Gaur, egubakoitza, *Together* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 20:30ean. Datorren egubakoitzean, urtarrilaren 30ean, berriz, *Soñadores*.

**ASTEBURUKO FILMAK**  
Bihar, zapatua, domekan eta astelenehenan, *Te doy mis ojos* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan; eta astelenehenan, 20:30ean.

**GAZTETXOENDAKO FILMAK**  
Bihar, zapatua, eta domekan, umeendako eta gaztetxoendako *Rugrats vacaciones salvajes* filma emango dute, 17:00etan.

**ARIZMENDI IKASTOLA**  
Bihar, zapatua, Arizmendi ikastolak Derrigorrezko Hezkuntza proiektuaren aurkezpena egingo du Amaia Udal Antzokian. 11:30ean izango da eta hainbat ekitaldi egingo dituzte.

**AEDrenAGENDA**

**ARRASATE LEHIAKETAK**  
AED elkarteak antolatzen dituen Arrasate Lehiaketek 17. aldía dute. Eta lanak aurkezteko azkeneko eguna da otsailaren 6a (egubakoitza). Hainbat sail daude: ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia eta euskalki-grabazioa, hain zuzen ere. Interesatuok bidali zuen lanak honako helbidera: AED. Pablo Uranga 4.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Atzerapen nabarmena Epeleko errepidean**

Epeleko errepidea egiteko lanek atzerapen nabarmena izan zuten. Hasiara baten, administrazioak urte hasierarako zabalduko zutela adierazi zuen. Lanen atzerapenean zerikusi handia izan zuten euriteek sorrarazitako lurjausiek. Horrez gain, aurrekontua 1.300.000 pezeta garestitu zen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Kirrimarria"*




Istilua, eztabaida zaratatsua.  
—Gaur gabian andra gizonok kirrimarran bat ibillirik izan bia dabe.

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Eli Galdos Arrasate Irratian**

Aste honetan Eli Galdos oñatiarra elkarrizketatu dugu; Xabier Arzallusen gainean galdetu diogu. Eli Galdos EAJko kidea oso ondo ezagutzen du Arzallus. Elkarrizketa zapatu eta domeka goizean eskainiko dugu, baita anti-sorgailuen gainean Sexologia Zerbitzuko lagunekin egin duguna ere. Hori guztiori 10:15ean izango da, Nerea Zubietek gidatzen duen albistegiaren ostean. Asteko albiste garrantzitsuenak zapatuan eta domekan entzun daitezke, 10:00etan.



**Iñaxio Oliverirekin solasean**

Mondragon Unibertsitateko errektore Iñaxio Oliveriri egingo elkarrizketa eskainiko dugu martitzenean, 19:15ean. Azkenaldian, GOITBko *Iluntzean* saiorako Aintzane Gardoki kazetariak egindako elkarrizketak irratiz eskaintzen gabiltza. Eguenean, berriz, *Kontu Kontari* tarte eskainiko dugu. Eusebio Iñarra eta Espe Lizarralde arrasatearrek garai bateko kontuak gogoratuko dituzte, eta aspaldi bizilagunek zuten harremanaz jardungo dute.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Astelenehen, 19	<b>1°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguaztena, 14	<b>14°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>101 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 14	14°C 1°C 11,7 l/m²
Eguena, 15	13°C 5°C - l/m²
Egubakoitza, 16	12°C 3°C 8,9 l/m²
Zapatua, 17	11°C 8°C 50,3 l/m²
Domeka, 18	11°C 3°C 24,4 l/m²
Astelenehen, 19	8°C 1°C - l/m²
Martitzena, 20	8°C 2°C 6,1 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- EGUBAKOITZA**  
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**  
10:00 Asteko albisteak.  
10:15 Asteko elkarrizketak: Xarra, Gaztelupeko Hotsak diskoetxe kidea euskal musikak jasaten duten boikotaz. Eva Ruiz de Egiño eta Larraitz Arando sexologak; Aitor Arregi, zinema ekolozia; Patxi Agirrebeña, AHTren aurkako taldeko kidea, garraioaz...
- DOMEKA**  
10:00 Asteko albisteak.  
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia  
10:06 Igo Autobusera magazina: elemerideak, elkarrizketak, kirolak...  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia  
11:06 Igo autobusera magazina  
11:30 Arrasate Irratiko albistegia  
11:40 Igo autobusera magazina  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
17:00 Izarren ordua.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**  
19:10 Iluntzean: Iñaxio Oliveri

## ASTEABIHITZETAN

### Txirri, Mirri eta Txiribiton Amaia antzokian

Joan den astean, Amaia Udal Antzokia neska-mutikoz bete zen, Txirri, Mirri eta Txiribitonek bi saio grabatu zituzten-eta. Ez da lehenengo aldia, orain dela bi urte ere izan ziren-eta Arrasaten, saioak eskaini eta grabatzen.

Festa giro paregabean, Euskal Herriko pailazo ezagunek *Triki Traka Triki Tron* saioko bi grabaketa egin zituzten. Ibarreko neska-mutiko eta guraso mordoa izan zen Amaia antzokian. Arrasaten grabatutako bi saio horiek laster egongo dira Euskal Telebistan ikusgai.

### Gazteek eta Udalak elkar ulertu dute

Arrasateko gazteen eta Udalaren arteko komunikazioa bere onera itzuli da, oraingo agintaldiko arduradunek eta Arrasateko Gazte Kontseiluak bakoitzaren zereginak argi utzi eta gero. Kontua da Gazte Saileko arduradun berriek ez zutela behar den moduko harremana izan Arrasateko hainbat gazte ordezkatzan dituen Gazte Kontseiluarekin.

Udaleko arduradun berriek, informazio falta tarteko, nahastu egin zituzten Gazte Kontseilua eta Arrasateko gaztetxea. Harremanetan jarri eta berba egin eta gero, gauzak argitu egin dituzte.

### Elkarriko kideak, sinadurak batzen

Joan den zapatuan, Elkarriko kideak kalean izan ziren Bake Konferentziaren aldeko sinadurak batzen. Hiper Eroskiko aparkalekuan izan ziren, debagoiendarren sinadurak batzen. Sinadurak batzeaz gain, Bake Konferentziaren alde egiteko 5 euro eskatu zituzten.

Elkarriren asmoa ehun mila sinadura batzea da, eta orain arte berrogei mila sinadura inguru batu dituzte. Horregatik, falta diren sinadurak batzeko Elkarrikoek ahalegin berezia egingo dute.



### Txistularien kontzertua udaletxean

Domeka eguerdian, Arrasate Musika Eskolako Txistulari Bandak eta Txistulari talde ertainak kontzertua eman zuten osoko bilkura aretoan. Herritar asko animatu zen kontzertua zuzen-zuzenean ikustera, eta txistulariek kontzertu ona eskaini zuten. Eskertzekoak dira holako kultura ekitaldiak.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Bakoitzari dagokiona

Aste honetan jakin dugu Sanzek zuzentzen duen Nafarroako gobernuak aditza eman duen azken kontua.

Gutxieneko Hizkuntzen Europako Bulegoak (EBLUL, ingelesez) errieta egin dio Nafarroako gobernuari euskararekiko duen jarrerarengatik. Erakunde horren esanetan, gobernuak euskara baztertzeari utzi beharko

lioke, eta Nafarroa osoko eskola publikoetan euskara irakastea bermatu beharko luke.

Sanzen gobernuak ezeztatu egin ditu salaketa horiek eta erakunde hori gaizki informatuta dagoela erantzun du. Euskararekin eta Itoizko urtegiarekin duten jarrera ikusita, lotsagabe hutsak direla esatea besterik ez zaigu falta.

Bestalde, bitxia da benetan Brasilen egin dutena. Jakingo duzue AEBetara heltzen diren atzerritar asko fitxatu egiten dituztela, gizakiek izan ditzaketen eskubide guztiak, errugabetasuna barne, albo batera utzita.

Horren ondorioz, Brasilerak AEBetatik -bakarrrik AEBetatik- joaten direnak fitxatu egiten dituzte. Zelanbait, euren txanpon berdinarekin erantzuten diete. Eta gaur egun ez da gutxi!

## ASTEKOIRUDIA



GORKA ETXABE

### GARIBAICO INGURUNEA HANKAZ GORA JARRIKO DUTE

Ezagun da Arrasaten aparkatzeko arazo handiak daudela. Autoa uneoro erabiltzeko ohitura handia daukagu, eta gero eta auto gehiago daude. Horrez gain, garabiak autoa gaizki aparkatuta harrapatuz gero, isun handiak ordaindu behar izaten dira. Autoa erabiltzeko ohitura kentzen ez dugunez eta lur

gehiagorik ez dagoenez, Udalak aparkalekuak lur azpian egingo ditu. Guztira, Garibain 407 aparkaleku egingo dituzte. Horietatik, zenbait pribatuak eta beste batzuk publikoak. Lan horiek irauten duten bitartean, Garibaiko ziburuak, zuhaitzak eta bestelakoak kendu egingo dituzte. //B.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Pando  
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Toilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

HIRIGINTZA/ Mendebaldeko Saihesbidea

# Diputazioak onartu egin du Olandixoko tunela, urtetan ezezkoa ematen ibili eta gero

UBANE MADERA

**Gipuzkoako Foru Aldundiak Olandixoko tunela edo Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidea egitea onartu du. Hala, aurten lanak egiteko proiektua idatziko dute. Eta, epeak betetzen badira, espero dute 2006ko bigarren seihilekorako inauguratzea errepide berria.**

Albiste onak datoz Arrasatera Diputazio aldetik: urte luzez ezezkoa esaten ibili eta gero, Olandixoko tunela edo Mendebaldeko Saihesbidea egitea onartu dute. Ignacio Lakuntza alkateak kontatu digunez, Diputaziokoek aurten idatziko dute errepide berria egiteko proiektua. Are gehiago, aurreratu digu dagoeneko hasi direla proiektuaren pleguarekin lanean. Horrez gainera, aurtengo aurrekontutik 300.000 euro gorde ditu Foru Aldundiak horretarako.

Behin proiektua idatzi eta jendaurrean ipini eta gero, lanak esleituko dituzte, ohiko prozeduraren arabera. 2005eko aurreneko seihilekoan izango da hori. Eta horren ostean hasiko dira Mendebaldeko Saihesbidea eraikitzen (2005eko bigarren seihilekoan).

Oro har, egindako aurreikuspenen arabera, lanek urtebete edo urte eta erdi iraungo dutela uste du alkateak. Hala, guztia bide onetik joanez gero, 2006ko bigarren seihilekoan errepide berria inauguratzea da asmoa.

## HAMAR URTE ITXAROTEN

Aramaio edo Garagartza ingurutik herri barrura etortzea zorazkoa izaten da egunean zenbait aldiz. Normalean bost minutuan egiten den zatia ordu erdira luzatzen da sarri. Aspalditik gabiltza horrela. Eta Arrasateko Udalak ere hala ikusi zuen orain dela 10 urte, 1994an, hain zuzen ere.

Sasoi hartan, Egitamu Orokorra lantzen zebiltzan. Eta han orduan zuten Takolo eta Markulete lotzeko bideren bat egitea beharrezkoa zela, Olandixopetik tunela eginda. Horrela bakarrik arinduko litzateke inguruko autoen joan-etorria. Udalaren ustez, Diputazioari zegokion lan hori egitea. Foru Aldundiak, berriz, Udalarari zegokiola zioen. Bost urtez ez zen besterik gertatu. Gauzak horrela, eta Olandixoko tunela egitea herritarren interes orokorrerakoa dela-eta, MCCk eta Udalak hitzarmena sinatu zuten tunelaren gaineko aurreproiektua idazteko, 1999an. LKSk egin zuen lan hori.

## LAU ALTERNATIBA

Hala, bada, lau aukera aurkeztu zituen LKSk saihsbide berria egiteko. Aurrenekoa: Takolon hasi eta Olandixoko 724 metroko tunelarekin zeharkatu eta gero,

Aramaioa joateko bidearekin bat egingo luke. Bigarrena: Mugarriten hasi eta Aramaioarako bidearekin bat egingo luke. 800 metroko tunela egin beharko litzateke Olandixotik. Hirugarrena: Muxibarren hasi (baserria botata) eta 805 metroko tunelaren bitartez Olandixoko zeharkatu eta gero, Aramaioarako bidearekin bat egingo luke. Eta azkena: gaur egungo errepidearen ondotik. Takolon hasi eta Olandixopetik 240 metroko tunela egin eta gero, Alecopen eta Eskola Politeknikoan zehar saihsbideraino iritsiko litzateke.

## BIGARRENA EGOKIENA

LKSk berak esan zuen aurreneko aukera zela egokiena, Takoloko biribiluneara, hain zuzen ere. Gaur egungo udalbatzarrak, aldiz, ez du gauza bera pentsatzen. Ignacio Lakuntza alkateak zera adierazi digu: "Pentsatzen dugu gerora begira bigarren alternatiba dela egokiena. Batetik, tunelaren luzera aurrenekoaren antzerakoa delako, eta bestetik, zuzenean lotuko genuelako errepide berria gaur egungo saihsbidearekin. Eta, gainera, Aramaio, Aretxabaleta eta Arrasate ere lotzen ditugu. Gauzak horrela, ikusten dugu aurrera begira erabilgarriagoa dela bigarren alternatiba". Horrez gainera, Takoloko alternatibaren gainean zera dio: "Hori da eramatea Udala plazan dagoen arazoa Takoloko biribilunera". Hala, Diputazioarekin berba egin zutenean, zuzenean bigarren alternatibaren gaineko proiektua idazteko eskatu ziote la esan digu alkateak.

## NONDIK NORA

Beraz, Diputazioak idatzi beharreko proiektuak honako ezugarriak izan beharko litzuzke: bide berria Mugarrite inguruan hasi-



Mugarritetik atera eta gero, Aramaioa doan bidearekin egingo du bat Mendebaldeko Saihsbideak.

*Epeak: 2004an proiektua idatzi eta 2005ean jendaurrean erakutsi eta lanak esleitu*


*Aurreikuspenen arabera, urtebete edo urte eta erdi ibiliko dira errepide berria eraikitzeko lanetan*

*Errepidea Mugarrite inguruan hasiko da eta Aramaioa doan bidearekin bat egingo du*

ko da; hain zuzen ere, Araba etorbidearen amaiera aldean, hain justu. Han, Aretxabaletako bide zaharrerako eta saihsbiderako bidegurutzean, hain zuzen, 46 metroko erradiodun biribilunea egin beharko dute.

Hala, biribilunetik aterako da bidea. Takolora doan bidearekin paralelo joango da zati batean. Esan beharra dago aurreikusitakoaren arabera zati horretan zailtasunak izango dituztela, mendihagalak egonkortasun arazoak

ditu-eta. Kontuak kontu, bideak aurrera egingo du; eta bihurtu baten bitartez, Olandixorako noranzkoa hartuko du. Hala, 800 metroko tunelaren bitartez zeharkatuko dute mendia. Tunela Alecopenetik gertu bukatuko da. Eta mendiaren beste aldean, Aramaioa doan bidearekin egingo du bat Mendebaldeko Saihsbideak. Hain zuzen ere, Mendigaitza eta Mendiapuzpi baserriak baino apurtxo bat aurrerago.



LKSk REN AURREPROIEKTUTIK ATERATA

Goiko eskemak erakusten du orain dela hamar urte inguruan zegoen ibilgailuen joan-etorria; orain, handitu egin da.

## EGOERA HOBETZEKO

Lehen esandako moduan, gaur egungo errepidean izaten diren auto-ilaren arazoa konpontzea Olandixoko tunelaren helburua da. LKSk egindako azterketaren arabera, goizeko lehen orduetan eguegundian, adibidez, 800-900 ibilgailu dabilta Gipuzkoako Foru plazaren eta Udala plazaren artean. Eta beste horrenbeste Gipuzkoako Foruen plazatik Alfonso VIII kalera. Udala plazatik Urribarrira, berriz, 600-700 ibilgailu da beste horrenbeste Zarugaldetik Udala plazara. Datu horiei, azken urteotan Arrasaten izan den trafikua gehitu behar zaie, batez ere gune berriei begiratuta (Fagorren hazkundera, Garaia...).



Hirugarren solairutik hasiko dira anbulatorioa eraberritzeko lanak; zatika egingo dituzte.

GOIATZ ARANA

**HIRIGINTZA/** Anbulatorioa eraberritzeko lanak

## Datorren astean hasiko dira anbulatorioa berritzen

UBANE MADERA

Datorren astean hasiko dituzte anbulatorioa berritzeko lanak. Goitik behera eraberritzea da asmoa. Baina, zatika egingo dute hori. Hala, hirugarren solairuarekin hasiko dira. Horren ondorioz, hustu egingo dute solairua eta ospitalean egokituko dute lekua.

Orain dela pare bat urte iragarri zuten anbulatorioa berritzeko asmoa zutela. Goitik behera, gainera. Adibidez, kontsultak berri-

tu gura dituzte, baita itxarongelak ere. Oro har, erosotasunean hobekuntzak egitea da helburua. Horrez gainera, eta oraingo egitura bere horretan utziko duten arren, kanpotik ere txukunduko dute eraikina.

Era berean, kontuan hartuta anbulatorioa dezente eraikin zaharra dela, eraberritze lanekin segurtasun baldintzak hobetzeko asmoa ere badute.

### ERAIKINA EZ DUTE ITXIKO

Lehen esandako moduan, hori guztiori zatika egingo dute, hiru-

garren solairutik hasita aurrenekorra iritsi arte. Beraz, oraingoz, hirugarren solairua hustu egingo dute. Eta hura itxita dagoen bitartean, hirugarren solairuko kontsultak-eta Eskualdeko Ospitaleko gune batean eman go ditzuzte.

### URTE ETA ERDI

Aurreikuspenen arabera, 18 hilabete iraungo dute anbulatorioko lanek, urte eta erdi, beraz. Behin eraberritze lanak bukatuta, larrialdien saila handitu egingo dute.

## Emakumeen gaineko argazki erakusketa

Sahararen gaineko erakusketa kendu eta emakumeen gaineko argazki erakusketa ipini dute Monterronen. Hain justu ere, emakumeen eskubideen gainekoak dira; mundu osoko emakumeek jasaten dituzten gehiegikeriak erakusten dituzte: erlijioak eragindakoak, gerrek, politikak... Urtarrilaren 31ra arte izango da ikusgai.

Bestalde, datorren martitzenean, hilak 27, Amnesty International taldearen emakumearen sarearen gaineko hitzaldia izango da, 19:00etan.



## Aparkaleku berriak Zerrajeran, eta prezio berezia Laubiden

U.M.

Garibaiko lur azpiko aparkalekua egiten duten bitartean, aparkaleku berria izango da Arrasate Musikalen ondoan. Era berean, Laubideko parkinga gauzez erabili ahal izateko prezio berezia ipiniko dute: 1 euro.

Garibaiko lur azpiko aparkalekua eraikitze lanen ondorioz, han inguruan dauden aparkaleku guztiak kendu egingo dituzte. Hala, bien bitartean, beste aparkaleku bat egokituko dute Arrasate Musikalen ondoan. Canalizaciones Industriales de Gas enpresak

egingo ditu lanok, ia 68.000 euroren truke. Asko jota hiru hilabete dute hori egiteko. Zerrajerako babes ofizialeko etxebizitzak eraiki bitartean ere aparkaleku horiek erabili beharko ditugu.

### LAUBIDEN, PREZIO BEREZIA

Bestalde, eta herritarrei gauzak errazteko asmoarekin, Arrasateko Udalak erabaki du lur azpiko aparkalekuaren lanek irauten duten bitartean, Laubideko parkingak prezio berezia izango duela gauzez. Horrela, herritarrek han utzi ahal izango dute ibilgailua. Hain zuzen ere, euro bat kostatuko da gau osoa.



XABIER URZELAI

Gauzez merkatu egingo dute Laubide, baina egunez 10 zentimo garestituko dute.

## LABUR

### 'Adierazpen libreko guneak' sortu gura ditu Udalak, kartelak-eta ipintzeko

Aspalditik dabil Udala herriko paretak-eta garbi izan nahian. Hori lortzeko azkenaldian kendu egiten dituzte paretetan ipinitako kartelak, eta pintadak ezabatu egiten dituzte. Gai horrekin lotuta, oraingo asteko Gobernu batzordeak *adierazpen libreko guneak* sortzeko proiektua aztertu du. Hain zuzen ere, kartelak-eta ipintzeko leku bereziak egokitu gura ditu Udalak. Edozelan ere, gaia aztertu ostean erabaki dute leku egokiak aukeratu arte, mahai gainean utziko dutela gaia.

### Gesalibar auzoko Bidezainen Etxea izeneko eraikina enkantean aterako du Diputazioak

Santa Agedako Bidezainen Etxea izeneko eraikina enkantean aterako du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Edozeinek parte har dezake enkantean, betiere baldintza jakinak betetzen baditu. Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu dute iragarkia. Hortaz, interesa duenak han eskura dezake informazioa. Edozelan ere, gutxi gorabehera hilabete baino lehen aurkeztu beharko dira eskaerak. Bi etxebizitza daude enkanterako. Ikusi gura dituenak honako telefonoetara deitu beharko du: 943 48 22 23 edo 943 48 22 92.

### Zenbait udalek 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntzaren gaineko proposamena egin dute

Joan den astean, 0-3 urteko hezkuntzarekin lotutako proposamena egin zioten Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Ignacio Lakuntza alkateak aurreratu digunez, 0-3 urteko hezkuntza zentro pribatuetan zein publikoetan emateko helburuarekin aurkeztu zuten proposamena. Gaineratu zigun oraingo astean erantzungo zela Jaurlaritzak; eta erantzuna esku artean izan eta gero argituko dutela proposamena.



Garibaiko lorategian ipini dute, bigarren urtez, jaiotza; aurten, iaz baino apurketa gutxiago izan dira.

GABONAK/ Belenzaleen Elkarte

## Belenzaleen Elkartearen erantzuna jasotako kritikari

UBANE MADERA

Izartxu Belenzaleen Elkarteak argi utzi gura du Garibain ipini zuten jaiotzean, Gabon kantuak lau hizkuntzatan entzun zirela: euskaraz, latinez, ingelesez eta espainolez, hain zuzen ere. Eta, horren harira, adierazi du arratsalde bakarrik ipini zituztela Gabon kantuak.

Kontua da Euskal Herrian Euskaraz taldeak egindako salaketa baten ondorioz, joan den astean Arrasateko Belenzaleen Elkarteak ipinitako jaiotza ARRASATE PRESSko Txaloak eta txistuak atalean atera genuela. Honako

hauxe zen salaketa: jaiotzean goizez eta arratsaldean ipini zituzten Gabon kantuak espainolezkoak bakarrik izan zirela.

Horren aurrean, Izartxu Belenzaleen Elkarteak kideek zera argitu gura dute: "Garibai etorbideko lorategian muntatutako jaiotzako Gabon kantuen ordutegia 18:00etatik 22:00ak artekoa izan zen. Lau hizkuntzatan ipini genituen kantuak: euskaraz, espainolez, latinez eta ingelesez; CDak berak tartekatzen zituen kantuak. Bide batez, jaiotzarenatik jasotako txalo guztiak eskertu gura ditugu. Eta argi utzi gura dugu elkartearen

hasierako helburua Gabon giroa sortzea izan zela, oraindik ere hala dela, eta hemendik aurrera hala izaten segituko duela".

### LANAK ABIARAZITA

Behin hori argituta, aurtengo jaiotzaren gaineko balorazioa egiteko eskatu genien, baina, adierazi ziguten, oraindik emandako dirulaguntza batzuk eta kontatzeko dituztela. Egiten dutenean emango digute balorazioa, eta aurrera begira zer egingo duten ikusiko dute. Aurreko urteekin alderatuz, aurten apurketa gutxiago izan direla esan digute.

## Garibaiko aparkalekuarekin lotutako lanak hasi dituzte

U.M.

Oraingo astean hasi dituzte Garibaiko aparkalekuaren hasierako lanak egiten. Besteak beste, han aspaldi-aspalditik zeuden ziburu-zaburuak kendu egin dituzte, baita jarlekuak ere.

Poliki-poliki Garibai etxearen inguruak eraldatzen ikusiko ditugu. Izan ere, abiarazi dituzte lur azpiko aparkalekuak eraikitze-ko hasierako lanak. Oraingoan, hesi batekin inguratu dute lanak egin beharreko lekua (Biteri, nahiz eta gehienek Garibai esan); han zeuden jarlekuak kendu egin dituzte (Udal Biltegian gordeko dituzte) eta baita ziburu-zaburu zaharrak ere.

Hirigintzako teknikari Juan Antonio Urdangarinek kontatu digunaren arabera, aipatutakoez gainera, inguru hartan dauden zuhaitzak ere kendu behar dituzte (gero, behin proiektua buka-

tuta, zuhaitz berriak ipiniko dituzte). Eta, lur azpian dauden hodi batzuk lekuz aldatu behar dituzte. Hain zuzen ere, Hirigintzako teknikariak adierazi digu hodiak aldatzea izango dela lanik zailena.

### 'TIBURÓN', GARIBAI ETORBIDERA

Baina, duda barik, lanik ikusgarriena kioskoaren leku aldatzea izango da. Askok umetatik ezagutu dugu kioskoa leku hartan. *Tiburón* kioskoa, hain zuzen ere. Orain dagoen lekutik Garibai etorbidera eramango dute, behin betiko.

Bestalde, inguruan dagoen semaforoa ere aldatu behar dute lekuz. Eta, jakina, hemendik aurrera, jaietan eta etortzen diren zaldiko-maldikoak ipintzeko beste leku bat egokitu behar dute Udalak, behin lan guztiak bukatuta, orain arteko lekua ezingo dute erabili eta. Hilabetez ibiliko dira lanak egiten.



Tiburón kioskoa kendu egingo dute gaur egun dagoen lekutik.

## Fuel-olio gehiago aurkitzeaz gain, orain, amiantoa ere aurkitu dute Zerrajeran

ARRASATE IRRATIA / U.M.

Uste baino kutsadura handiagoa dago Zerrajerako lurretan. Joan den astean bertan, beste olio biltegi bat aurkitu zuten. Eta, horrez gainera, torlojuak egiten ziren eraikinean amiantoa aurkitu dute orain.

Amiantoa. Horixe da Zerrajerako lurretan egindako azkeneko aurkikuntza. Torlojugintzako fabrika zaharrean aurkitu dute elementu kutsakorra, zakuetan sartuta. Ingurumen Saileko buru Joseba Ugaldek Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, gainera, zakuetako batzuk apurtuta daude, eta, amiantoa hauts

moduan dagoenez, amiantoa zakuetatik ateratzeko arrisku handia dago.

### OLIO GEHIAGO

Hori, batetik. Bestetik, badirudi mugagabeko fuel-olio kopurua dagoela lurperatuta Zerrajerako lurretan. Izan ere, joan den astean, beste biltegi bat aurkitu zuten. Orain arteko guztiak batuta, bosgarrena da.

Kontua da, gainera, orain arte kutsatutako lurrak batzen zebiltzala egin zutela aurkikuntza. Makina hondeatzailearen palak aurkitu zuen biltegia. Izan ere, Udalak uste zuen dagoeneko Zerrajerako lurretako biltegi guztiak kenduta zituztela. Eta dago-

eneko kutsatutako lurrok eta garbitzen zebiltzan.

Orain, berriz, ikusi dute gauzak ez direla horrela. Are gehiago, Joseba Ugaldek Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, oso ezkor daude Zerrajerako egoerarekin, orain artekoa ikusita bali-teke eta biltegi gehiago egotea lurperatuta. Hain zuzen ere, Joseba Ugaldek aurreratu du torlojugintzako fabrikari amiantoa azaldu den moduan, fabrika hura botatzen dutenean seguru agertuko dela beste zerbaite haren azpian, Biltegi berriak edo.

### 120.000 LITRO INGURU

Fuel-olioari dagokionez, orain arte 120.000 litro inguru atera

dituzte Zerrajeratik. 2002ko azaroan aurkitu zuten aurreneko biltegia Zerrajeran. Urtebete geroago, beste hiru biltegi azaldu ziren. Eta orain, bosgarrena.

### GARBIKETA LANAK

Jakina, hori guztiori garbitu egin behar dute. Eta hori egiteko zehaztuta zegoen aurrekontua egokitu egin behar dute. Hain justu ere, 168.000 euro pasatxo zituzten zehaztuta, baina Joseba Ugalde zinegotziak argi dauka dezente handituko dela aurreikusitako zenbaki hori. Edozelan ere, horren zati bat Eusko Jaurlaritzari atxikita dagoen IHOBE elkarteak ordainduko du.

## LABUR

### Nazio Ertabidagunearen hausnarketa

Datorren eguaztenean, urtarrilak 28, batzarra egingo dute Monterronen. Nazio Ertabidaguneari deitu dute ekitaldia. Esandakoaren arabera, besteak beste, orain arte eman dituzten urratsak eta haien ondorioak aztertuko dituzte; landutako ibilbidearen gaineko hausnarketa egitea ere zehaztu dute. Parte-hartzaileen artean Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Antxon Mendizabal arrasatearra izango da. Hain zuzen ere, hurrengo izango da batzarreko hizlaria. Ekitaldi hori 19:00etan hasiko da.





## MARTITZENEAN, DANBOR HOTSAK IZAN ZIREN IKASTETXEETAN

**M**artitzen goizean, Arrasateko ikastetxeek gogotik ospatu zuten San Sebastian eguna, eta ikastetxe gehienetan entzun ahal izan ziren danbor hotsak. Argazkiak Arizmendiko San Viator Txiki gunean, Umezaintzan eta Bedoñabe Herri Eskolan atera genituen. Ikastetxe guztietako neska-mutikoez deskantsu barik jo zuten danborra; kapela buruan, danborra gerrian eta makilak eskuan, fin jarraitu zituzten Sarriegi maisuaren doinuak. Hiru ikastetxetan izan ginen gu, eta ez ginen argazki kamerarekin hurbildu ginen bakarrak izan, ikastetxe guztietan guraso mordoa ikusi genuen-eta, seme-alabek danborra nola jotzen zuten ikusi guran. Donostian bai, baina Arrasaten ere sekulako danborrada daukagu.



**Kanebo**

INTERNATIONAL

**MIREN ARRIETA  
PERFUMERIAN**

Urtarrilaren 26tik 30era  
**PROMOZIOA**  
KANEBO produktuak  
erosita, oparia  
jasoko duzu\*

Kanebo etxeko edertasun  
aholkulari batek  
informatuko zaitu eta  
tratamendu eksklusiboa  
eskainiko dizu.

Ezinbestekoa da txanda  
hartzea.

Bisita gaitzazu Arrasaten  
Zerkaosteta kalea 12  
Tel.: 943 79 00 35

\* Izakinak bukatu arte.



OLAIÁ MONDRAGON

Arrasateko jokalariek behin eta berriro egin zuten topo Ormaiztegiren defentsa gogorrarekin.

## ESKUBALOIA

## AGR Arrasatek 24-25 galdu zuen zapatuan Ormaiztegiren kontra

Norgehiagoka galdu arren, Arrasateko taldea igoera faserako sailkatuta dago

XABIER URZELAI

AGR Arrasate taldeari ez zion on egin zapatu arratsaldean jokatzek. *Pitxi* Herreroen mutilek norgehiagoka parekatua jokatu zuten Ormaiztegiren kontra, baina kanpotarrek, azken minutuetan estututa, irabazi egin zuten.

Aurreikuspenak beteaz, Arrasatek eta Ormaiztegi norgehiagoka parekatua jokatu zuten zapatu arratsaldean Iturripen. AGR Arrasate ondo dabil, joan den astera arte liderra zen-eta. Lau garren postuan zegoen Ormaiz-

tegi, baina, talde sendoa dela erakutsita irabazi egin zuten.

Neurketaren zati handienez etxeokak izan ziren aurretik markagailuan. Hala ere, alde txikia izan zuten mondragoetarrek; gol bat edo bi gol gehienez. Arrasatekoak ondo ibili ziren defentsa lanetan, baina ez hainbeste erasoan. Zorte handirik ere ez zuten izan, eta beste batzuetan sartzen dituzten jaurtiketak huts egin zituzten. Horretan izan zuten zeresanik kanpoko defentsa gogorrak, eta baita epaileak gogortasun hori ez zigortzek ere.

Azken minutuetan kanpotarrek gogotik estutu zuten, eta nor-

gehiagoka berdintzeaz gain, aurretik jarri ziren. Arrasatek ez zuten erreakzionatzeko gaitasunik izan, eta Ormaiztegi nagusitu zen (24-25).

## IGOERA FASEAREN ZAIN

Lehen territorial mailako Arrasateko taldea igoera fasea jokatzeko sailkatu da. Arrasatekin batera Urola ere sailkatu da; eta, hain zuzen ere, Urolaren kontra jokatu du oraingo asteburuan AGRk.

Lehenengo fasea amaitzeko bi partidu baino ez dira geratzen, eta hurrengo fasea prestatzeko partidu baliagarriak izango dira.

## MENDIA

### Besaide Mendi Elkartearkin sagardotegira

Besaide Mendi Elkartek sagardotegira irteera antolatu du otsailaren 1erako. Sagardotegira bazkaltzera joan aurretik, baina, Jaizkibel inguruan osteratxo egingo dute. Hiru orduko ibilbidea egingo dute, Hondarribiatik Pasaiara, hain zuzen ere. Txango horretara joateko asmoa daukanak urtarrilaren 27an eta 28an izango du izena emateko aukera, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara, Besaideko egoitzan. Hauek dira prezioak: bazkide ikasleek 27 euro; bazkide nagusiek 29 euro; bazkide ez diren ikasleek 30 euro; eta nagusiek 32 euro.

## XAKEA

### Arrasateko taldeak galdu egin zuen Calasanzen kontra

Joan den zapatuan, Euskal Ligako bigarren jardunaldia jokatu zuen Arrasateko Xake Taldeak. Norgehiagoka parekatua izan zen, eta Arrasatek 1,5-2,5 galdu zuen Gasteizko Calasanz taldearen kontra. Lehenengo bi tauletan Gasteizko taldeak jokalarik hobeak zituen; hirugarren eta laugarren tauletan, baina, mondragoetarrek gehiago ziren. Ruizek, baina, ez zuen partida erabakitzen asmatu, eta horregatik ez zuen Arrasatek berdinketarik lortu. Oraingo aste bukaeran, Arrasatek Barakaldoren kontra jokatu du, kanpoan baita ere.

## ATLETISMOA

### Jonathan Perez eta Markel Blanco, ondo baino hobeto

Arrasateko bi atleta horiek lan polita egin dute asteburuan. Jonathan Perezek Euskadiko Txapelketan hartu zuen esku joan den zapatuan, eta pertika jauzilariak 4,71 metroko jauzia eginda lehenengo postua eskuratu zuen. Oraingo asteburuan, Anoetan jokatu den klubun arteko txapelketan izango da, Realarekin. Bestalde, Markel Blanco lasterkari gaztea Zestoan korritu zen Gipuzkoako Kros Txapelketan izan zen, eta atleta mondragoetarra azkarrena izan zen kadete mailan. Javier Mentxakak ere lan ona egin zuen, bosgarrenaren izan zen-eta.

## ZALDIBARARETO FOTBOLA

## EMAITZAK

## A MULTZOA

Betrayer - Saukelu Scream	7-4
AT Celaya - Abokajarro	5-8
Rayo Aldeano - Alpagat Estutu!!!	4-3
Bikain Akademia - Iriztu Taberna	8-5
You Know - Billy & The Cowboys	6-2

## B MULTZOA

AC Surcos - Speed Boys	3-4
Tomahawk - Lasagabaster	3-3
Errasti Krist. - El Ekipo A	0-5
Dream Team - Fuxion	3-3
Etixerat - Goma-2	7-3

## PARTIDUAK

## URTARRILAK 24, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Bikain Akademia - You Know! <b>Billy</b>
12:00: Rayo Ald. - Billy & The... <b>You Know!</b>
13:00: Speed Boys - Dribling. <b>Rayo Aldea.</b>
14:00: Saukelu Scream - KPPC. <b>Speed Boys</b>
15:00: Tomahawk - El Ekipo A. <b>KPPC</b>
16:00: Dream Team - Etixerat. <b>Tomahawk</b>
17:00: AC Surcos - Lasagabaster. <b>D. Team</b>

## URTARRILAK 25, DOMEKA

10:50: Errasti Kristald. - Goma-2. <b>Iriztu Tab.</b>
12:00: AT Celaya - Iriztu Taberna. <b>Goma-2</b>
13:00: Betrayer - Aloña Taberna. <b>AT Celaya</b>
<b>Deskantsua:</b> Abokajarro, Fuxion, Alpagat-Est.

## ZIGORREZ BETETAKO ASTEBURUA

## ABOKAJARRO TALDEA, A MULTZOKO LIDERRA

Txapelketa honetako ezusteko handienetako bat Abokajarro taldea da. Talde gazte hori orain dela urte gutxi hasi zen Zaldibarren jokatzeko, eta hasierako urteetan bigarren faseko sailkatzeko gai izan ez baziren ere, talde horrek neurria hartu dio txapelketari. Zortzi partidu jokatu eta gero, Abokajarro A multzoko liderra da You Know edo Rayo Aldeano talde bateranoen aurretik. Ordua da talde gazteek testigua hartzeko.

Bestalde, astean zehar, antolatzaileek nahikoa lan izan dute asteburuan gertatutakoa aztertu eta zigorak banatzeko orduan. El Ekipo A taldeak zigorra jasoko du izenik eman ez duten jokalariekin jokatzeari. Etxereteoek hobe dute argi ibili: jokalarik batek bi partidu zigorra bete beharko du, abisatuta egonda ere portaera txarra izan duelako; talde bereko beste jokalarik bat ere abisatuta dago kontrarioari ostikada eman gura izateagatik.

## KIROLAGENDA

## FUTBOLA

**Zestoa - Mondra**  
Preferentea. Zapatuan. 15:45. Zubiaurren.

**Zarautz - Mondra**  
Ohor. Gazteak. Domekan. 16:00. Zarautzen.

**Arrasate CD - Baskonia B**  
Big. Gazteak. Domekan. 12:00. Atxabalpen.

**Arrasate CD - Eibar**  
Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

**Arrasate B - Antoniano**  
Big. Kadeteak. Domekan. 09:45. Atxabalpen.

**Arrasate - San Ignacio CD**  
Infantilak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.

**Mondra - Aretxabaleta**  
Neskak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.

## SASKIBALOIA

**Ointxe Arrasate - Kalagorri**  
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

**BKL - Arrasate**  
Juniorrak mutilak. Zapatuan. 16:30. Antizarren.

**Arrasate - Gros Xake B**  
Kadeteak mutilak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

## ESKUBALOIA

**Urola - AGR Arrasate**  
Lehen territ. Zapatuan. 18:00. Ispillan.

**Ereintza - Arrasate B**  
2. Territoriala. Zapatuan. 19:15. Errenterian.

**Arrasate C - Sanio Elgoibar**  
2. Territoriala. Domekan. 11:30. Iturripen.

**Gatz Museoa - Zarautz**  
Kadeteak. Domekan. 10:00. Iturripen.

**Urola - Gatz Museoa**  
Gazteak. Zapatuan. 16:15. Ispillan.

## ERRUGBIA

**Durango - Arrasate**  
Seniorrak. Zapatuan. 17:30. Durangon.

**Arrasate - Atletico San Sebastian**  
Kadeteak. Zapatuan. 15:30. Garagartzan.

## ELKARRIZKETA

AITZOL LAZKANO/PILOTARIA

# "Jende gutxi joaten da Uarkapera herriko pilotariak ikustera"

XABIER URZELAI

Aitzol Lazkano Euskadiko Pilota Txapelketan dabil buru-belarri. Gipuzkoako Txapelketan lan ona eginda eskuratu zuen Euskadiko Txapelketarako txartela, eta orain arte jokatuak bi partidua irabazi egin ditu. Txapelketa horren gainean eta pilotak Arrasaten bizi duen egoeraren gainean galdetu diogu.

### Lehenengo aldia da Euskadiko Txapelketa jokatzeko duzuna?

Bai. Beste txapelketa batzuetan izan naiz, baina lehenengo aldia da Euskadiko Txapelketan jokatzeko dudana.

### Gipuzkoako Txapelketan egindako lanari esker lortu duzue Euskadiko Txapelketa txartela.

Bai. Gipuzkoako Txapelketa-rekin hasi nuen denboraldia, eta txapelketa parekatua izan zen, lau pilotari izan ginen eta finalerako sailkatzeko aukerekin. Lau pilotariak berdinduta egon ginen, eta aldeko eta kontrako tantoek erabaki zuten finalerako nor sailkatuko zen. Tamalez, ez nintzen finalerako sailkatu, baina Euskadiko Txapelketa jokatzeko txartela eskuratu nuen.

### Ezin hobeto hasi duzue Euskadiko Txapelketa.

Bai. Lehenengo partidua Leitzako Azpiroren kontra jokatu nuen. Gure taldeko pilotari indartsuena dela esango nuke, eta 18-22 irabazi nion. Partidua hasi eta aurre hartu zuen markagailuan. Orduan, baina, min hartu zuen, eta markagailuari buelta emateko gai izan nintzen.

### Eta, joan den zapatuan ere irabazi.

Bai, eta hori ere justu-justu, 22-19 irabazi nion eta Perez nafarrari. Gaizki hasi nuen partidua, eta orduan ere kontrarioak aurre hartu zuen. Urduri hasi nintzen, eta pilota ez nuen gura moduan jotzen. Uarkapeko pilotalekua ondo baino hobeto ezagutzen dut, baina kostatu egin zitzaidan lekua hartzea. Hala, jokaldi baten belaunean kolpea hartu nuen, eta orduan hasi nintzen hobeto jokatzeko. Ezin nuen gura moduan korrika egin, baina pilotari indarrez jotzen nion, eta Perezek behe-eginda, azkenean, partidua irabazi egin nuen.

### Fase hau amaitzeko gertzen zaizkizun bi partidua ere Uarkapen jokatu dituzue.

Bai, eta alde horretatik zortea izan dut, lau partidutik hiruetan jokatu ditut eta. Oraingo asteburuko norgehiagokan zapatu eguerdian jokatu dut, 12:30ak aldera.

### Arrasateko pilotazaleek ez



XABIER URZELAI

*"Betidanik gustatu izan zait buruz buruko txapelketak jokatzeko, eta oso gustura nabil"*

### dituzte herriko pilotariak larregi animatzen, ala?

Ez. Egia esan, gure partiduetara jarraitzaile gutxi etortzen dira. Gainontzeko herrietan jende gehiago izaten da pilotalekuan, baina Uarkape hutsik egoten da. Jendea gure partidua ikustera etortzen denean asko eskertzen dugu, igarri egiten da eta. Ondo egongo litzateke gure partiduetara jende gehiago etorriko balitz.

### Hasieran, Euskadiko Txapelketan jokatzeko sari moduan hartu zenuen. Orain, baina, eskura duzue hurrengo faserako sailkatzea.

Euskadiko Txapelketa jokatzeko hasi nintzenean ez nuen txapelketako maila ezagutzen, eta

*"Maila txikietan gazte asko dabilta pilotan, baina beste maila batzuetan ez daude horrenbeste"*

helburu jakin barik hasi nintzen jokatzeko; ondo pasatzeko eta gozatzeko asmoarekin. Jokatu ditudan bi partidua irabazi egin ditut, eta beste biak etxean jokatu ditut. Orain, helburua hurrengo faserako sailkatzea da, lehen baino gertuago dago eta.

### Zelan ikusten duzue pilotaren egoera herrian?

Maila txikietan gazte asko ibiltzen da pilotalekuan, baina beste maila batzuetan ez daude horrenbeste pilotari. Herri Arteko Txapelketa jokatzeko garrantzitsua izaten da, txapelketa polita da eta. Horretarako, baina, maila guztietan izan behar dira pilotariak, eta guk kale egiten dugu hor.

## Ointxe Arrasatek badaki etxetik kanpo ere irabazten

X.U.

Arrasateko Saskibalo Taldeak 84-87 irabazi zion Getxori. Mondragoeko taldeak ez du mailaz jaitsi gura, eta jaitsiera fasean jokatu dituen bi partiduetan argi erakutsi du hori, biak irabazi ditu eta.

Getxori bere kantxan irabaztea ez da erraza. Horretarako beharrezkoa da ondo jokatzeko, eta hori da domeka goizean Zurutuzaren mutilek egin zutena.

Norgehiagoka hasi aurretik, Txitxo Ciarsolo zen Arrasateko taldeko protagonistak nagusia. Bergararrak Gabonetan utzi zuen taldea, baina Arrasateko taldeko joko antolatzaile bakarra, Iban Herzog, min hartuta dago eta Txitxo-k taldera bueltatzea onartu du. Esan gabe doa taldeak izugarri esker-tu duela hori.

### HASIERA ONA

Ointxe Arrasatek ondo baino hobeto jokatu zituen lehenengo minutuak. Ointxeko jokalariek jaurti zuten guztia saskiratu zuten, eta azpimarratzekoa da Gorka Kintanak hasierako minutuetan egin zuen lana. Lehenengo laurdenean debagoiendarrak izan ziren nagusi

(20-30) eta norgehiagokako minutu gehientsuenetan Getxo atzetik ibili zen markagailuan. Talde bizkaitarra, baina, ez da berehala makurtzen den horietakoa, eta minutuek aurrera egin zuten neurrian, getxotarrak alde txikitu zuten. Hala, laugarren laurdenean Ointxek aurretik joateari utzi zion, eta Getxo hasi zen markagailuan agintzen.

Aurreko partiduan bezala, azken minutuetan erabaki zuten partidua. Markagailuan atzetik joan arren, Zurutuzaren mutilek ez zuten amore eman. Taldeak gehien behar zuenean agertu zen Jagoba Gamarra. Norgehiagoka amaitzeko minutu baten faltan, aretxabaletarrak hiruko bi saskiratze egin zituen, eta sei puntu horiek norgehiagoka erabakita utzi zuten (84-87).

### BI JOKATU ETA BI IRABAZI

Goiko postuetan zeuden bi talderi irabazteko gai izan da Arrasateko taldea. Horri esker, Ointxe Arrasate hirugarren posturaino igo da.

Zurutuzaren mutilak bide horretatik jarraitzen ahaleginduko dira oraingo asteburuan ere. Norgehiagoka Iturripen jokatu dute (zapatua, 18:00). Kalagorriren kontra.

## FOTOKIROLA



### Lizentziak berritzeko epea zabalik

Debagoiena Zikloturista Taldeak lizentziak berritzeko epea ireki du. Horrekin batera, taldeko bazkide egiteko epea ere ireki du. Bazkideek 76 euro ordaindu beharko dute lizentziagatik, eta 15 euro urteko kuotagatik. Bazkide ez direnek 85 euro ordaindu beharko dute lizentzia berritzeagatik, eta taldean izena eman gura duenak zera ordaindu beharko du: lizentzia berritzeko 76 euro, urteko kuota ordaintzeko 15 euro eta beste 15 euro bazkide egiteko. Informazio gehiago 629 52 85 47 telefono zenbakian.

FUTBOLA

# Mondrak laugarren postuan jarraitzen du, Hernaniri ondo irabazi eta gero (3-1)

Arrasateko taldeak garaipen batekin hasi zuen Liga Txapelketa, eta bigarren itzulia ere modu berean hasi du, Hernani mendean hartuta

XABIER URZELAI

Jon Muruamendiarazen golek eman zioten Mondrari garaipena. Bi aste golik egin gabe egon eta gero, joan den zapatuan Arrasateko aurrelariak sasoian dagoela erakutsi zuen, *hat trick*-a egin zuen-eta. Orokorrean, taldeak ondo jokatu zuen, euri zaparrada hasi zen arte, behintzat.

Hernanik zelai erdian ahulezia handia erakutsi zuen, eta defentsan gogorak baziren ere, ez ziren azkarrak. Gainera, defentsaren lerroa aurreratuegi zeukaten, eta Muruak pase on bat jasotzen zuen bakoitzean, Arrasateko aurrelaria atezainaren aurrean geratzen zen, bakar-bakarrik. Horrela egin zituen Mondraren lehenengo bi golak; atezainaren aurrean bakarrik geratu eta urduri jarri barik lasai jokatuta, alegia. Lehenengo zatian beste gol bat egiteko aukera izan zuen: eskuin hegaletik *Muxi*-k pase ona egin zion, baina errazena egin beharrean baloia-ekin trabatu egin zen. Hori bai, buruan zeukana egiten asmatu izan balu, ikusteko moduko gola izango zen.

Argi dagoena da taldeko aurrelariak aukera onak izateko talde osoa dabilela ondo. Zer hobetu badagoen arren, zelai erdian eta defentsa lanetan serio ibili zen



Mondrak etxean irabazi behar zuen, eta Josu Zubiaren mutilek horrela egin dute azken bi jardunaldietan.

etxeko taldea. Hernanik ezer gutxi erakutsi zuen lehenengo zatian, eta izan zituen gol aukeretan Calvo atezainarekin egin zuen topo.

Bigarren zatian euria hasi zuen, baita gogor egin ere. Eguraldi txarrarekin gauzak aldre-

bestu egin ziren, eta jokoa zataratu ere bai.

Egoera horretan zailagoa zen Hernaniri min egitea. Hala ere, Muruak asmatu egin zuen zelan min egin; beste pase on bat jaso eta Arrasateko aurrelariak hiru

eta hutsekoa egin zuen. Norgehiagoka amaitzeko hiru minuturen faltan egin zuen Hernanik hiru eta batekoa, baina ordurako argi zegoen hiru puntuak Atxabalpen geratuko zirela. Garaipen horrekin Mondrak gero eta ger-

tuago ditu aurreko postuak, Zarautzek eta Elgoibarrek kale egin zuten-eta. Bigarren postuan dauden zarautzarrek 1-1 egin zuten Urolaren kontra. Hirugarren lekuan dagoen Elgoibarrek etxean galdu zuen, Trintxerperen kontra (0-1). Liderrak, Beriok, 1-3 irabazi zion Bergarari, eta, horri esker, donostiarrek lehenengo postuan jarraitzen dute. Mondrak 35 puntu ditu, Elgoibarrek moduan, Zarautzek puntu bat gehiago baino ez du, eta Berio 39 punturakin da lider.

## ORAINGO ASTEBURUAN, ZESTOA

Mondrak Zestoaren kontra jokatuko du oraingo asteburuan. Zestoarrek ez dute talde sendoa, baina euren zelaian irabaztea ez da batere erraza; futbol zelai txikia da, egoera kaskarrean egoten da eta futboleko egitea ez da batere erraza. Lehenengo itzulian, Mondrak gehiago zela erakutsita 2-0 irabazi zuen Atxabalpen.

Zestoaren kontra irabaztea uste baino garrantzitsuagoa da, goiko postuetan dauden beste bi taldek elkarren kontra jokatuko dute-eta. Berio eta Elgoibar nor baino nor gehiago ibiliko dira, eta aukera ezin hobea da Mondrarendako: Elgoibar atzean utzi edo liderra gertuago izan. Eta, horiek berdindu egiten badute, bi gauzak batera.

## Arrasatek balio handiko garaipena erdietsi zuen Zarautzen kontra (21-6)

David Jauregiren mutilek norgehiagoka garrantzitsua irabazi zuten joan den zapatuan. Zarautzi irabazi zioten. Joaneko partiduan Zarautz nagusitu zen; hori dela-eta, joan den zapatuan mondragoetarrek beharrezkoa zuten irabaztea; bestela, Zarautzek lau punturekin hasiko zuen hurrengo fasea, eta Arrasatek puntu barik. Mondragoetarrek hasiera-hasieratik zuten argi puntuek etxean geratu behar zutelara, eta hori lortzeko asmoarekin zelairatu ziren.

Norgehiagoka gogorra izan zen, Zarautzek ere ez zeukan-eta oparitzeko ezer. Bi taldeek lehenengo puntuak zigor kolpeen bidez egin zituzten. Arrasate aurreratu zen (9-6) eta lehenengo zatian ez zuten puntu gehiagorik egin. Entsegu bat bera ere egin barik erretiratu ziren bi taldeak aldagelara.

Bigarren zatian etxeko taldeak gototik egin behar izan zuen

*Arrasatek bi punturekin hasiko du hurrengo fasea, gainontzeko taldeen moduan*

lan, kanpotarrek ondo estutu zuten-eta. Bigarren zatian, gainera, euria zakar egiten hasi zen, eta jokoak ikusgarritasuna galdu zuen.

### HAIZEA ALDEKO

Euriarekin batera, haizea ere gogor ibili zuen. Zorionez, Arrasatek haizea alde izan zuen, eta mondragoetarrek asko eskertu zuten hori. Zarautz gehien estutzen zebilenean etorri zen mondragoetarren erreakzioa. Arra-

satek bi entsegu egin zituen, eta Zarautzek amore eman zuen.

### ORAINGO ASTEAN, DURANGO

Arrasatek Durangoren kontra jokatuko du lehenengo faseko azken partidua. Norgehiagoka horrek ez du hurrengo faserako balioa, eta partidu aproposa izango da minutu gutxi jokatzen dituztenei minutuak eman eta hurrengo fasea prestatzeko. Horrekin batera, titular batzuek atsedean hartu ahal izango dute.

Hurrengo faseko multzoa Zarautzek, Gaztedik, Santanderko Unibertsitateko taldeak eta Arrasatek osatuko dute. Lau taldeek bina punturekin hasiko dute fase hori; horrenbestez, inor ez da aldearekin hasiko. Hori dela-eta, sekulako parekotasuna egoteaz gainera, emozio handiko norgehiagokak izango dira. Mondragoeko taldeak lau partidu jokatuko ditu, bi etxean eta beste bi kanpoan, hain zuzen ere.



Oraingo asteburuan Durangoren kontra jokatuko du Arrasatek, Durangon.

## ELKARRIZKETA

OSKAR ARANA/JOKIN ZAITEGI LEHIAKETAKO IRABAZLEA

# “Euskal irakurleek literatura lan gozagarria izan dezaten saiatuko naiz”

ARRASATE IRRATIA

Oskar Arana debagoien-darra da Jokin Zaitegi lehiaketako irabazlea. Aranak ingelesez euskarara itzuli beharko du John Maxwell Coetzee idazle hegofrikarraren *Disgrace* eleberria. Arrasate Irratian izan zen.

### Beldur zara aurrean daukazu erronkarekin?

Apur bat bai, baina aldi berean pozik. Gustuko jardunetan, zailtasunak lanari interes puntu bat ematen dio. Eta erronka handia daukat aurrean, batez ere, kontuan hartuta literatura itzuli behar dudana lehenengo aldian izango dela. Esan didate ausartegia ez izan ote naizena, baina orain artekoa antza nahiko ondo egin dut. Eta esperantza hori daukat: aurrerakoa ere ondo egiteko, eta euskal irakurleek literatura lan gozagarri eta polita esku artean eduki dezatela; horretan saiatuko naiz.

**Irailaren 1erako itzuli beharko duzu eleberria. Hasteko, liburua irakurri behar izan duzu...**

Bai, liburua irakurri dut, materiala handik eta hemendik batu, lanaren gainekoak irakurri eta itzultzen hasi aurrekoak egin ditut. Laster baten hasi beharko naiz itzultzen. Beti laguntzen du autorearen eta lanaren gainekoak batzeak, norberaren gogoia zelanbait girotzeko. Hemendik aurrera jo eta ke ibili beharko naiz itzultzen.


**Disgrace da eleberriaren izena eta John Maxwell Coetzee da idazlea, iazko Nobel sariaren irabazlea. Ezagutzen zenuen Coetzee?**

Ez nuen ezagutzen. Nobel saria eman ziotenean entzun nuen lehenengo aldiz izen hori, eta gero, Jokin Zaitegi lehiaketaren deialdian izan nuen haren berri. Lehenengo aldiz orain irakurri dut haren gainean.

**Hego Afrikako kontuak kontatzen ditu beti Coetzee, eta oraingoan ere halaxe da: gizon baten kontuak dira istorioaren ildoak...**

Bai, hala da. Istoria oso indartsua iruditu zait, harrapatzen zaituen horietakoa. Oso gauza sakona oso erraz eta oso zehatz adierazten ditu autore horrek. Nik uste dut lanak interes handia daukala, eta irakurtzeko oso polita izango dela.

**Pazientzia beharko duzu. Irakurri dugunaren arabera, oso prosa sakona da, hitzak erabiltzeko orduan askotan jatorrizko esanahiari lotzen zaio...**



XABIER URZELAI

**“Coetzee hitz gutxirekin asko adierazten du, eta sentimenduak behatzen maisua da”**

Bai, pazientzia beharko dut, dudarik ez. Zailena da itzulpen zuzena ematea. Haren prosak ezaugarri horiek dituela egia da: oso-oso zehatza da, hitz gutxirekin gauza asko adierazteko gaitasuna dauka. Horrez gainera, sentimendua behatzen maisua da. Pertsonen gorabehera moralak eta zalantzak jasotzen oso abila da Coetzee.

**Hasteko, ingelesez ondo egin beharko duzu...**

Bueno, ingelesez nahiko ondo moldatzen naiz. Ingelesez irakurtzeko zailtasuna daukat, baina ez naiz oso aditua. Gero, beti daude bitartekoak testua ulertzen laguntzeko. Horri ez diot beldurrik. Ulertzea baino zailagoa da euskaraz zehatz ematea, horretan izango dut nik egin beharreko lan handiena.

**Epaimahaiko partaide Patxi Ezkiagari asko gustatu zitzaion zuk egindako lana, oso**

**“Pertsona intuitiboa naiz, eta horrek lagunduko dit lan originalaren espiritua jasotzen”**

**ondo lotuta zegoelako testuaren egitura eta testuaren izpiritua...**

Pozten nau hori entzuteak. Ez neukan horren berri. Horretan saiatu nintzen. Batzuetan, hitzak edo esaldiak eurak bezain garrantzitsuak dira narrazioaren espiritua eta erritmoa jasotzea. Eta idazle horri antzematen zaio egiturekin bihurri samarra dela. Baina bihurtasun horretan beti nahi bat edo asmo bat edukitzen du. Baina intuizioa nire alde dago. Pertsona intuitiboa naiz, eta horrek lagunduko dit esanahia edo horren ezipiritua jasotzen. Hori daukat alde, eta kontra, ni ez naizela ingeles filologoa, nahiz eta ingelesez irakurtzen ohituta nagoen.

**Agian, udako oporretan Hego Afrikara joan beharko duzu datu guztiak zehatzak diren jakiteko...**

Aitzakia polita izango litza-

**“Ausartu egin naiz Jokin Zaitegi delako, ingelesa dakidalako eta literatura gustuko dudalako”**

teke. Itzulpena bukatu aurretik ez dut uste, baina harra barrura sartu zait. Hark deskribatzen dituen inguruak eta Lurmutur Hiria ezagutzeko gogoz nago. Agian, sari horren laguntzarekin eta aurten oporrak irailaren ostean hartu beharko ditudanez, agian saiatuko naiz joaten.

**Orain arte zeure burua ez zenuen literatura kontuetan imajinatuko, ezta?**

Ez; izan ere, beti izan naiz literatura-zalea, baina orain arte ez dut neure burua horretan ikusi. Eta neure burua errazago imajinatzen dut itzultzaile, idazle baino. Baina inoiz ez dakizu zertan ibiliko zaren. Hala, aurten, ausartu egin naiz, Jokin Zaitegi gure lehiaketa delako, ingelesa ezagutzen dudalako eta literatura gustuko dudalako. Agian, egunen baten, kontatzeko gauza interesgarriak ditudala uste badut, idazten hasiko naiz.

## LABUR

### Martxoaren 8ko kartel lehiaketa jarri dute abian

Arrasateko Udaleko Emakume Sailak abian jarri du 2004ko martxoaren 8ko kartel lehiaketa. Aurtengo Arrasateko emakumeen eskubideen aldeko egunak lelo hau izango du: *Martxok 8 gure eskubidea delako!!!* Beraz, ezinbestekoa izango da kartelean lelo hori ipintzea.

Horma-irudi lehiaketak honako oinarriak izango ditu: edozeinek har dezake parte, berdina da nongoa den; kartelaren neurriak gehienez 50x70 zentimetrokoak izan beharko du; eta teknika libre izango da.

Horma-irudiek honako testua izan beharko dute, derrigorrez: *Martxoak 8 gure eskubidea delako!!!*

Irabazleak 800 euroko saria jasoko du (%20ko PFEZ-aren atxikipena izango du sari horrek), eta, Udaleko Emakume Sailak egoki ikusten badu, aurkeztutako kartel guztiak erakusketa egin ahal izango du.

Lanak egilearen nortasuna azaldu barik eta atzealdean lelo bat dutela aurkeztu beharko dira. Horrekin batera, gutun-azal itxi batean lelo bera eta egilearen datuak ipini beharko dira. Kartelok 2004ko otsailaren 16a baino lehen Arrasateko udaletxera -Emakume Saila- bidali beharko dira. Epaimahaia erabakia lehenbailehen emanango dute aditzera.

### Urtarrilaren 31n cante flamenkoaren finala egingo dute

Datorren zapatuan, urtarrilaren 31n, Al Andalus elkar-teak cante flamenkoaren finala antolatuko du Amaia Udala Antzokian.

Dagoeneko txapelketa horren hiru finalerdiak jokatuta dituzte. Lehena, azaroaren 29an; bigarrena, urtarrilaren 10ean; eta hirugarrena, urtarrilaren 17an.

Finalean honako abeslariak hartuko dute parte: Jose Davila (Quintana de la Serena), Carlos Arrabal (Kordoba), Bartolome De Haro (Linares), Maria Jose Perez (Almeria), Montse Perez (Almeria) eta Pepe Lara (San Pedro Alcantara).

Finala 19:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da. Abeslari bakoitzak hiruzpatalu kantatu abestuko ditu. Horrez gain, ikuskizunaren hasieran, Al Andalus elkar-teko dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du. EAEko partaide onenaren saria Francisco Sobrinok irabazi du.

MUSIKA/ Goikobalu Txiki abesbatza

# Goikobalu Txiki hirugarren gelditu zen Errenteriako Gabon Kantuen Txapelketan

I.B.

Iazko kontu batekin gatoz, Gabonetan ezin izan geniolako albiste horri behar zuen lekua eman. Abenduaren 27an, Goikobalu abesbatzako hiru taldek Errenteriako 57. Gabon Kantuen Txapelketan hartu zuten parte, eta txikienek hirugarren saria eskuratu zuten.

Errenteriako Ereintza Kultur Elkarteak, urtero moduan, Gabon Kantuen Txapelketa antolatzen du. 2003ko abenduaren 27an, txapelketa horren 57. edizioa egin zuten, Errenteriako Udala Kiroldegian. Goizez Goikobaluko haurren abesbatzak hartu zuten parte, eta arratsaldean 16 urtetik gorako abeslariak osatutako abesbatzak hartu zuten parte.

Arrasateko Goikobalu Txiki abesbatzak hartu zuten parte goizeko kanporaketan, eta hirugarren saria lortu zuten haurren sailkapenean, Zumarte eta Zarautz Txiki abesbatzen atzetik. Guztira bost taldek esku hartu zuten, Errenteria-Usurbil, Zarautz, Arrasate, Andoain eta Irungo herriak ordezkaturik.



GOIKOBALU

Abeslari gaztetxoek gain, herriko hainbat eta hainbat senitarteko eta lagun ere joan ziren Errenteriara.

## BOSGARREN ALDIZ SARITUAK

Iazko edizio horrekin, Goikobalu abesbatza bosgarren aldiz izan da saritua: 1996an, bigarren saria irabazi zuen; 1998an ere bigarren saria irabazi zuen; 1999an, laugarren saria irabazi zuen; 2002an, hirugarren saria irabazi zuen; eta 2003an ere hirugarren saria irabazi zuen. Goikobaluko arduradunen esanetan, txapelketa horretan esku hartzea Arrasateko gaztetxoentzat oso garrantzitsua da, motibazio handiz hartzen dutelako. Horregatik, urtero Goikobaluko egitasmoen artean ezinbestekotzat dute gaztetxoek txapelketa horretan parte hartzea.

## GURASO ETA LAGUN MORDOA

Goikobalu abesbatzak azkenengo txapelketara ume mordoia eraman zituen. 53 ume eta gaztetxo guztira, 4 urtekoa gazteena eta 16 urtekoa nagusia.

Horiez gain, guraso eta senitarteko asko ere gerturatu ziren Errenteriara gaztetxoak animatzera. Hori baino gehiago, Errenteriara Arrasateko ikurrinabatzuk eta *Aupa, Arrasate!* leloa

zuen pankarta handia ere eraman zuten.

Ezagun da Arrasaten kanturako zaletasuna egon badagoela. Goikobalu abesbatzak izen handia hartu du dagoeneko, eta gaztetxoek ere badira horren protagonista. Horrez gain, jarraitzaileak ere badituzte, jakina.

# Iciar Bollain zuzendariaren 'Te doy mis ojos' film esanguratsua, Amaia antzokian

I.B.

Poliki-poliki, arrasatearrek hartu dute ohitura asteburuetan Amaia Udala Antzokian filmak ikusteko. Hala ere, argi dago filmaren aukeraketak baduela horretan zeresanik. Asteburuan, Iciar Bollainen *Te doy mis ojos* emango dute.

Orain dela bi aste, 731 lagun joan ziren Amaia Udala Antzokira filmak ikustera. Egubakoitzetako zineklubak ez du hain harrera ona izan. Jende asko ez da gustura gelditu eguenetik egubakoitzera egindako aldaketarekin. Bestalde, Clint Eastwood zuzendariaren *Mystic River* filmak jakin-min handia piztu zuen.

Joan den asteburuan, osteran, hiru egunean -domekan, antzerkia antolatu zuten- 245 joan ziren filmak ikustera.

## EGUNGO ARAZOA ISLATZEN DUEN FILMA

Gaur, egubakoitza, Chem Kaige zuzendari txinatarraren *Together* filma emango dute, 20:30ean. Bihar, zapatua, domekan eta astelehenean, *Te doy mis ojos* filma ikusi ahal izango da, iluntzeko saioetan; zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan; domekan, 19:00etan eta 22:00etan; eta astelehenean, 20:30ean.

Iciar Bollain zuzendariak gizarteriaren arazoekin konprometitu dauden filmak egiten ditu, eta oraingoa ere hala egin du. Film

horretan, bikote baten istorioa kontatzen du. Senarrak emazteari tratatu txarrak ematen dizkio, eta zuzendariak bizipen horren gaineko xehetasunak kontatzen dizkigu. Bollainek zinema sinisgarria egiten du; are gehiago, film hori egiteko, izugarritzko informazio bilketa egin zuen, eta hori igarri egiten da ekoizpenean. Horrez gain, emakumearen sentipenak eta bizipenak erakusteko gain, gizonaren iritzia eta sentipenak ere erakutsi dizkigu maisulan horretan. Merezki du film hori ikustea, eta ziur arrasatearrek ondo erantzun dutela!

*Te doy mis ojos* filmak Goya sarietarako bederatzi kandidatuta lortu zituen. Protagonistak Eli-

sabet Gelabert eta Luis Tosar aktoreak dira.

Film horrez gain, zapatuan eta domekan, 17:00etan, *Los Rugrats, vacaciones salvajes* filma emango dute. Marrazki bizidunak dira eta umei zuzenduta daude. Rugrats umeak hondoratu eta uharte galdu batera heldu dira. Uharte horretan familia bitxi batekin elkartuko dira, eta hainbat abentura izango dituzte.

Datorren egubakoitzean, urtarrilaren 30ean, *Soñadores* filma emango dute, 20:30ean. Bernardo Bertolucci zuzendu du eta 68ko maiatzean dago girotuta. Ikasle hirukote batek sexu harremanak eta beste hainbat kontu bizi izango ditu giro zehatz horretan.

## LABUR

### Udaleko Kultura Saila Aratusteen kartel bila hasi da

Arrasateko Udaleko Kultura Saila hasi da 2004ko Aratusteen egitaraua antolatzen. Horrekin batera, jakina, herriko Aratustek apaindu eta irudikatuko dituen kartelaren bila hasi da.

Urtero moduan, Kultura Sailak kartelen lehiaketa antolatu du. Arrasaten bizi edo errolatutako edozeinek har dezake parte. Kartelaren neurriak 50x70 zentimetro izan beharko du, eta formatuak, nahitaez, bertikala.

Lana disketean aurkezteko aukera izango da edo DIN A-3 tamainako paperean inprimatuta. Teknika librean izango da, baina lanak derrigorrez 2004 Aratustek Arrasate leloa izan beharko du.

Egindako lanak udaletxera -Kultura Saila- eraman beharko dira, otsailaren 4a baino lehen. Egilearen nortasuna azaldu barik eta atzealdean leloa duela aurkeztu beharko dira. Horrekin batera, gutun-azal itxi batean lelo bera eta egilearen datuak ipini beharko dira.

Lehiaketako irabazleak 360 euroko saria jasoko du; kopuru horri PFEZren atxikipena ezarriko zaio. Eta, Kultura Sailak egoki ikusten badu, kartel guztiekin erakusketa egingo dute. Saritzen duten lana Udalaren esku geldituko da, eta saritu bariko lanak erakusketa bukatu eta 30 egunera jaso ahal izango dituzte.

### Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute Arrasateko gaztetxean. 22:30ean hasiko da eta honako taldeek joko dute: Never Surrender, Enboskada eta Cyprinidians-ek. Lehenengo biak Arrasatekoak dira eta punk eta Oi! musika egiten dute. Aspaldian, kontzertu asko ematen dabilta. Cyprinidians taldea, berriz, Bermeokoa da eta ska egiten du.

### Gazteendako hainbat ikastaro antolatu dituzte

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak gazteendako hainbat ikastaro antolatu ditu. Otsailean hasiko dira. Honako hauek dira: txalaparta, sabel dantza, alboka eta argazkigintza, hain zuzen ere. Matrikula epea zabalik dago eta 18 euro kostatuko da; 12, ikasle eta langabeendako. Jo Gazte Bulegora edo deitu 943 77 00 65 telefonora.

E, TXO!

GUREGAIK / ALDIZKARIAK

### TORTILLA LEHIAKETA BEREZIA ANTOLATU DUTE

Urtarrilaren 30etik otsailaren 6a bitartean, Arrasateko Gazte Kontseiluak Gazte Astea antolatu du. Hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horien artean, bada bat aurretik izena ematea eskatzen duena: urtarrilaren 31n, zapatua, tortilla lehiaketa antolatu dute, Herriko Plazan. Banaka edo taldeka esku hartu ahal izango da, eta ez dute adin mugarik ipini. AEDn edo Txatxilipurdin eman beharko duzu izena, urtarrilaren 26a aurretik.

### OKENDOKO LUDOTEKAREN LEHENENGO URTEURRENA

Txatxilipurdik kudeatzen duen Okendoko ludotekak urtebete egin du. Horregatik, gaur, egubakoitza, jaia egin dute. Besteak beste, askari berezia egin dute, eta karaokea antolatu dute. Horrez gainera, ludotekako gaztetxo batzuek honako bertsoak idatzi dituzte, eta Maritxuren doinuarekin abesteko aholkatu dute: *Kaixo lagun guztiok / jolasean gabitz / ludotekak bi urte / beteitu jadanik / ondo pasatzen dugu / lagun guztiokin / joku pilo artean / gabiltza poz-pozik.*

*Ludoteka maitea / zorionak zuri / urte berri honetan / gu gatoz kantari / ostiraleko festa / da dibertigarri / animatu zaitez / gugana etorri.*

### FERMIN MUGURUZA, ANGER ETA IRAINA KONTZERTUAN

Gazte Kontseiluak antolatu duen Gazte Astearen barruan, AGAKOK kontzertu itzela antolatu du Musakolako kiroldegian. Urtarrilaren 30ean, egubakoitza, Fermin Muguruza, Anger eta Iraina taldeek joko dute. Sarrerak salgai daude Iratin eta Ekaitzen.

## 'Skate'-arekin eta musikarekin lotutako 'Nothing Without' kalean

IKER BARANDIARAN

*Nothing Without* aldizkariaren hamargarrena kalean da. 'Skate'-aren eta punk eta hardcore musiken gaineko artikuluak batzen ditu agerkeriak, eta, diseinuari dagokionez, asko hobetu du.

*Nothing Without* aldizkaria egiten duten gazteak pozik daude. Eta ez da gutxiagorako. Dagoeneko hamar zenbaki kaleratu dituzte, eta honako hau, esku artean dagoena, oso txukuna da. Aldizkariari argazkien eta diseinuaren onena atera diote inprimategian, eta hori eskertu egiten da.

### 'SKATE' GEHIAGO, MUSIKA GUTXIAGO

Aldizkariako edukiei dagokionez, *skate* kirolaren zaletasuna nagusitzen da. Besteak beste, Dani Rosado eta Etor Jon Iraola patinatzaile gazteei elkarrizketa egin diete; Arraska taldeak San Juanetan Arrasaten antolatutako Patxi Matxin patinatzaileen jaia- ren gaineko kronika idatzi dute; aldizkariaren kolaboratzaile

*Hamargarren zenbakia kaleratu dutela ospatzeko, urteotako argazki onenak batu dituzte*

batek Helsinkira egindako bidaiara kontatu du, eta abar.

Horrez gain, ezagun da Arrasateko patinatzaileek beste herri batzuetara patinatzerara joateko duten joera. Horiek ere batu dituzte, jakina: Pasaiako Camsara, Arrigorriagara eta Eskoriatzara joan zirenekoa.

Bestalde, hamargarren zenbakia denez, orain arte batu dituzten hamar argazki adierazgarri argitaratu gura izan dituzte, betiere patinatzearen gainekoak, jakina. Eta eskerrak inpresioa hobetu dutela, horrek lagundu egiten du-eta argazki horiek diren bezala ikusten.



Hainbat herritarrek oso gustura irakurtzen dute aldizkari hori.

Musikari dagokionez, arin samar dator aldizkaria. Punka eta hardcorea egiten duten talde batzuen diskoen kritikak egin dituzte. Horrez gainera, Poison Ideak Bermeon egindako kontzertuaren kronika idatzi dute, eta

Bartzelonako 24 Ideas taldearen hitzak gogora ekarri dituzte.

Aldizkaria 2 euroren truke dago salgai, eta 77 orrialde dauka. Publizitatea ere sartu dute. Ekaitz eta Jai Zale tabernetan eros dezakezu!

## Arizmendiko ikasleek eurek aurkeztuko dute ikastolaren hezkuntza proiektua

I.B.

Bihar, zapatua, Arizmendi ikastolako ikasleek ikastolaren hezkuntza proiektua aurkeztuko dute. Amaia Udal Antzokian izango da, 11:30ean. Hainbat ekitaldi batuko dituzte aurkezpen horretan.

Bihar, zapatua, Arizmendi ikastolako hezkuntza proiektua aurkeztuko du Amaia Udal Antzokian. Ekitaldi berezi hori 11:30ean hasiko da eta 6 eta 16 urte arteko ikasleak izango dira pro-

tagonista nagusiak, euren guraso eta irakasleen laguntzarekin. Aurkezpen ekitaldia 11:30ean hasiko da, ikasleek joko duten txalaparta hotsarekin, hain zuzen ere. Horren ostean, Arizmendi ikastolaren derrigorrezko hezkuntza proiektuaren gaineko aurkezpen bideoa eskainiko dute.

Bideo emanaldiaren ostean, Lehen Hezkuntzako ikasle talde batek ekitaldi horretarako bereziki prestatu duen koreografia dantzatuko du. Horren ondoren, Oihulari Klown taldeak antzez-

lan labur bat eskainiko du. Talde veterano horren antzezlanek barregura eta hausnarketa eragiten dute. Eta, biharko ekitaldiak bukatzeko, Amaia Udal Antzokian batutako guztiak luntxa izango dute, Amaia antzokiko hall-ean.

Ekitaldi horrez gain, otsailaren 7an, zapatuan, Arizmendi ikastolako *BetiZu* musika ikuskizuna antolatuko du.

**6 ETA 16 URTE ARTEKOEI ZUZENDUTA**  
Hain zuzen, Arizmendi ikastolako aurkeztuko duen hezkuntza

proiektua 6 eta 16 urte arteko ume eta gazteei dago zuzenduta. Horien garapen integrala du helburu proiektuak.

Egunotan, Arizmendi ikastola ate irekien kanpainan dabil, eta horretan jarraituko du hila- ren 28ra arte. Arizmendi ikastolako 3.000 bat ikasle ditu, eta Euskal Herriko ikastola handienetakoa bilakatu da, ikasle kopuruari dagokionez, behintzat. Gaur egun, Arizmendi hamabi eskolagunetan banatuta dago, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Arrasaten, hain zuzen.

OSORIK  
PUB

Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

HIES  
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

## BEHEKODENDATIK

## Carlos Gonzalez

## EKOS INMOBILIARIA

XABIER URZELAI

Ekos inmobiliariarie 1996xen zabaldu euen San Andresen, autobus geltokixen onduen. Lokal txikixe zan, baiñe, Carlosek esaten dauen moduen, jentiek konfiantzie ipiñi euen Ekosen, eta, konfiantza horri esker, gaur egun lokal haundixauen dauz, San Andresen bertan.

## Ze eskaketan dutzezu 2004ei?

Osasune, osasun barik diruek ez dau-eta balixo.

Eta, juen barri dan urtietei ze faltau izen jako?

Ezin gare kejau, danetik euki dogu-eta apur bat.

Ze falta jako Mondragueri? Ziniek, restaurantiek... Zerbitzuek, azken baten.

Eta, ze dauko ona?

Jentie.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

*Ghost / Las siete caras / Rolling Stones.*

Nora juengo zitzake gustora? Eskietan, Andorrara.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Fregetie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Neure andriekin.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Automobile.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Datozen urtietan Mondragueko biztanle kopurue bikoiztu egin biher dala.

Zerk arduraketan zau?

Semiek.

Eta, zerk poztu?

Semiek baitta be.

Azkenaldixen bilddurre emuten dau inmobiliariara batera sartzie.

Bai, eta ez da hori geuk gure dogune. Guzurre emuten badau be, geuk gurau dogu etxiek 20 millioitan saldu. Etxiek garesti dauz, baiñe ez geure kulpiagatik.

Etxebizitzen preziuek gora egitten jarraiketana dau. Horrek



XABIER URZELAI

*“Neure ustez, ez dau burbujarik; eskaerie dauen bittartien preziuek ez dau behera egingo”*

## ez dauko toperik?

Exixe da juen barri dan urtietan be preziuek gora egin dauela, baiñe emuten dau hamendik aurrera mantendu egingo dala.

Eta, burbujien kontue nun geraketan da?

Neure ustez, ez dau burbujarik, ez dot uste preziuen beherakadarik gertatuko danik. Azken baten, ez dau beherakada hori bultzatuko dauen faktorerik. Etxebizitzen preziue merkauek jarten dau, eta eskaerie egoten bada, preziuek ez dau behera egingo. Eta, eskaeriek ez dau behera egin biher; hortan,...

Nun saltzen dozue etxe gehixen?

*“Bizi izeteko bada, kalien erosiko neuke etxie; inbertiduteko bada, Erguin aldie leku ona izan leike”*

San Andres inguruen, kalien eta Zigorrolan esango neuke.

Eta, zeuk nun erosiko zeuke etxie?

Bizi izeteko bada, kalien erosiko neuke; inbertiduteko bada, Erguin aldie leku ona izan leike, Garaia proiektuekin zona horrek irabazi egingo dau-eta.

Oin momentuen, zein da dauketzuen etxebizitza merkiena?

Guzurre emuten badau be, 102.000 euroko etxe bat daukogu saltzeko. Hori bai, ez dau Mondraguen, Antzuolan dau.

Hortan, kanpora juen biher.

Autopistie egitteko asmue dauenez, jente asko Araba aldera jueteko asmuekin dabil.

## NIREBIDAIAHURA/ Iker Ullibarriarana

Maroko / 2003ko abuztuan


Iker eta Ainhoa Rabatera iritsi berri utzi genituen joan den astean. Hiriburuan ez ziren luze egon, berehala hartu zuten-eta Marrakexerako bidea: “Marokora joateko asmoa daukanari, Marrakex bisitatze-ko gomendatuko nioke. Sekulako kaosa dago han: zirkulazioa, jendea, saltzaileak... Baina herri politena da; denetan ikusgarriena. Hainbat gauza azpimarragarri daude han, baina gauean merkaturatzen zen giroa auke-erakotuko nuke”.

Ikerrek eta Ainhoak egun bat egin zuten Marrakexen, eta Tamnougalt-erako bidea hartu zuten. Desertura joateko asmoa zeukaten, eta, bidean zirela, kea zerion taxi bat ikusi zuten: “Taxi hartan zihoanak etxera joan behar zuela-eta eramango ote genion galdetu zigun, eta guk baietz esan genion. Gizon hark ez zeukan aberats itxuririk, baina bere etxera eramantzen gintuenean, harridura geratu ginen. Sekulako etxea zeukan, igerilekuaz, palmondoekin... Han geratzeko gonbita egin zigun, eta bere etxean igaro genuen gaua”.

Hurrengo egunean basamorturako bidea hartu zuten, aurreko egunean egindako lagun aberatsarekin batera: “Basamortuan igaro genuen gaua, eta zelako gaua, gainera. Han, zerua hurbilago zegoela zirudien, izarrak gain-gainean genituen”. Basamortutik lagun aberatsaren etxera itzuli ziren: “Oso ondo egon ginen berarekin, oso tipo jatorra zen. Kontua da bagindoazela esan genionean bere etxean lo egiteagatik dirua eskatu zigula. Ez genuen horrelakorik espero, eta harridura geratu ginen. Mairuak argiak dira, eta gu argienarekin elkartu ginen. Horregatik, Marokora joaterakoan komeni da jakitea gehienek laguntasunagatik oso gutxi egiten dutela”.

Saharan egon eta gero, Iker eta Ainhoa Settaten eta Larache-n ere izan ziren. Nahiko kilometro eginda, etxerako bidea hartu zuten, Malagan geldituena eginda. Bi egun egin zituzten Malagan, deskantsatzen.

XABIER URZELAI



Iker eta Ainhoa, desertuan egindako argazkian.

*“Mairuak argiak dira, eta gu argienarekin elkartu ginen”*



Lokal berria.  
Sarbide erraza.  
Parking-a gertu.

**ARRASATEKO  
NOTARIOTZA  
BERRIA!**

Zerrajera 2 behea

Tel.: 943 79 13 58 / 943 79 63 35

Faxa: 943 79 01 73

notmon21@euskalnet.net



## ZAHARREN ETXETIK



XABIER URZELAI

Bainuetxe programaren bitartez, zenbait erretiratut egun batzuk lagun artean egiteko aukera izango dute.

# Udaletxean eskuragarri daude bainuetxe programako inprimakiak

IKER BARANDIARAN

Uterero moduan, Imersok abian jarri du bainuetxe programa. Horren bitartez, erretiratuek eta pensionistek Espainiako Estatuko hainbat bainuetxetan egonaldiak egin ahal izango dituzte.

Bi txanda antolatu dituzte: bata, otsailetik abuztura artekoa; eta bestea, irailetik abendura artekoa. Lehenengo txandan joan gura dutenek urtarrilaren 31 aurretik eman beharko dute izena. Bigarren txandara itxaron gura dutenak, ostera, maiatzaren 16a aurretik apuntatu beharko dira.

### INPRIMAKIA UDALETXEAN ESKATU

Imersok antolatzen duen programa horretan esku hartzeko inprimakiak Arrasateko udaletxean daude eskuragarri. Hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuetako Sailean eskatu beharko dira. Interesatuak inprimaki horretako datuak bete beharko ditu, eta familia-medikuak eskatzailearen osasun egoeraren gaineko agiria

bete beharko du. Horrez gainera, interesatuak lau bainuetxe eta lau data posible aukeratu beharko ditu, badaezpada ere. Gero, inprimakia bete ostean, udaletxera bueltan eramanez gero, Gizarte Zerbitzuen Saila arduratuko da Imersora bidaltzeaz. Hala ere, norberak gura izanez gero ere

izango du inprimakia Imersora bidaltzeko aukera.

Imersok jasotzen dituen inprimaki guztien artean, eskatzaileen adina eta osasun premiak hartuko ditu kontuan. Horren arabera, eskatzaileen zerrenda egingo dute, eta lehen postuetan daudenek aukera handiagoak izango dituzte.

### BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Bainuetxe programan esku hartu gura dutenek honako baldintzak bete beharko dituzte: Gizarte Segurantzako pentsioduna izatea erretiroarengatik, baliaezintasun batengatik edo alarguntasunarengatik; bizikidetzari kalte egingo dion buruko gaixotasunik edo gaixotasun kutsakorrik ez izatea; egunerokotasunean nor bere kabuz baliatu ahal izatea; bainuetxeetako tratamenduen beharra izatea, eta haieko kontraindikaziorik ez izatea; eta eskaera egiteko baldintza guztiak betetzea.

Bainuetxe programako egonaldia hamabost egunekoak izango dira.

## Erantzuna postaz jasoko dute

**Imersoko arduradunek eskaera guztiak aintzat hartuko dituzte, eta interesatuak duten adina eta premia -duten osasunaren arabera, bainuetxera joateko premia handiagoa izango dute- kontuan hartuko dituzte, zerrendak egiteko orduan.**

**Behin zerrendak egin ondoren, Imersok postaz jakinaraziko die interesatuiei.**

## LABUR

### Ceferina Altuna, Arrasaten jaiotako emakume nagusienetakoa, hil egin da

Joan den astelehenean, urtarrilaren 19an, Ceferina Altuna Abasolo hil egin zen. Ceferina Altuna Arrasaten jaio zen orain dela 103 urte, Txaparro baserrian. Txaparro baserria Zaldibarren atzealdean kokatuta zegoen, baina aspaldi bota zuten.

Ceferina Altuna, aspalditik, Santurtzin bizi zen, eta han hil da, baina oraindik baditu senitartekoak Arrasaten.

### Abaroa elkarteko Gabonetako otarren zenbaki sarituak aditzera eman dituzte

Abaroa elkarteak Gabonetako bi otarren zozketako zenbaki irabazleak aditzera eman ditu. Dagoeneko eskuratu dute lehenengo saria, baina bigarrena ez du inork jaso. Zozketan 635 zenbakia eskuratu zuenak lehenbailehen Abaroara jo beharko du bigarren otarra jasotzera. Horrez gain, otsailaren 19a aurretik Abaroako bazkideek urteko kuota ordaindu beharko dute.



### 80 urtetik gorakoei omenaldia, Uribarrin

Atzo, eguna, Uribarriko erretiratuen elkarteak omenaldia egin zien 80 urtetik gorako bazkideei. Urtero gonbidatzen dituzte auzoko erretiratuak, eta oso ondo hartzen dute ekimen hori.

Artikulu hau idazteko orduan, omenaldia egin barik zegoen, baina jakin badakigu lagun askok eman ziotela baietza gonbidapenari. Lehenik eta behin, bazkaria izan zuten elkartearen. Horren ostean, sariak banatu zituzten, eta bazkaltzera joan ziren gizonezko eta emakumezko nagusienei omenaldi berezia egin zieten. Hurrengo astean, horren berri gehiago! //B.

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea  
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50

**LAKET**

**Bonaventure Diesel Pepe Levis**

Otalora z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**EGUZZKIGRAF** →  
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea F-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941



ARRASATE  
**Laura Sanchez**  
Urtarrilaren 18an, 33 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Jesus Romeo**  
Urtarrilaren 20an, urtebetetza. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Xabier Etxezarreta**  
Urtarrilaren 18an, 8 urte.  
Zorionak! Jon eta Ane.



ARRASATE  
**Unai Legarda**  
Urtarrilaren 18an, 12 urte.  
Zorionak! Jon eta Ane.



ARRASATE  
**Leire Errasti**  
Urtarrilaren 20an, 12 urte.  
Zorionak! Ane eta Jon.



ARRASATE  
**Aitor Ormaetxea**  
Urtarrilaren 27an, urtebetetza. Zorionak! Ane, Ana eta Jon.



ARRASATE  
**Karlos Mugertza**  
Urtarrilaren 26an, urtebetetza. Zorionak! Ane, Jon eta familia.



ARRASATE  
**Gaizka Vitoria**  
Urtarrilaren 26an, 26 urte.  
Zorionak! Goienako lankideak.



ARRASATE  
**Haritz Zubiate**  
Urtarrilaren 24an, 21 urte.  
Zorionak, gaztetxeko zaindari! Giltzen partetik.



ARRASATE  
**Aitor Pavon**  
Urtarrilaren 19an, 21 urte.  
Zorionak! Vinos Mansoren partetik.



ARRASATE  
**Irati Larrinaga**  
Urtarrilaren 18an, 1 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Amaia Letona**  
Urtarrilaren 12an, 8 urte.  
Zorionak! Etxeko eta lagun partetik.



ARRASATE  
**Urko Jaso**  
Urtarrilaren 26an, 2 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Saioa Belastegi**  
Urtarrilaren 23an, 13 urte.  
Zorionak! Etxeko eta Gufi koadrilaren partetik.



ARRASATE  
**Xabier Belastegi**  
Urtarrilaren 26an, 12 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARAMAIO  
**Gaizka Parra**  
Urtarrilaren 26an, 6 urte.  
Zorionak! Ainhoa, Leire, Unai eta Garazi.



ARRASATE  
**Ainhoa Carrascosa**  
Urtarrilaren 25ean, 5 urte.  
Zorionak! Aitaren, amaren eta Leireren partetik.



ARRASATE  
**Leire Carrascosa**  
Urtarrilaren 24an, 1 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta Ainhoa.



ARRASATE  
**Ainhoa Sagasta**  
Urtarrilaren 25ean, 22 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Jon Nevado**  
Urtarrilaren 21ean, 6 urte.  
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE  
**Maitane Lasa**  
Urtarrilaren 27an, 17 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Mime Errasti**  
Urtarrilaren 29an, 8 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta etxekoak.



ARRASATE  
**Itziar Arkauz**  
Urtarrilaren 21ean, urtebetetza. Zorionak! Patxo handi bat, amatxo!



ARRASATE  
**Mikel Santiago**  
Urtarrilaren 28an, 5 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Paula Heriz**  
Urtarrilaren 26an, 14 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Maribi Aginalde**  
Abenduaren 23an, urtebetetza. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Jon Balanzategi**  
Urtarrilaren 10ean, 6 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Andoni Aranzabal**  
Urtarrilaren 22an, 13 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.

**Adi!** Argazkiak emateko lekua:  
**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

arbolapeta  
**beinke**  
arrasate

**Aretz**  
Taberna  
Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA

**Mobiliario**  
**ARENAZA**  
- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA


**BASATI**  
TABERNA  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
TEL. 943 711768

## EZETZASMATU



Zein da argazkian ikusten duzuen baserri hori?  
Arrastoa: oraindik ere existitzen da.

ARTXIBOA



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Maravilla lentejak**  
Kiloko kaxa

**1,39€** 231 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**ANTONIA ERIZ** endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Antonia!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Zerrajerarenak.**

## ARRASATEKOHISTORIA

### 'Mondragones'-en omenezko kalearen gaineko kontuak

'MONDRAGON SUS CALLES' / J. LETONA

**A**zoka txikiaren kanpoko aldea zeharkatzen du Mondragones kaleak. Gehienoi ezaguna egingo zaizue kale horren izenaren jabea: Juan Bautista Azkarate Egaña Mondragones pilotaria.

Arrasaten jaio zen, 1891ko ekainaren 24an. Eta 1917tik 1927ra arte eskuz banakako txapelduna izan zen. Harik eta Atano III.ak txapela kendu zion arte. Hala ere, *Mondragones*-ek 1942ra arte segitu zuen pilotan ederto jokatzen.

Txikitan hasi zen pilotan *Mondragones*. Gero, nagusiago zela, Donostian soldadutza egin zuen, artillerian. Han jokatu zuen aurreneko partidu profesionala. Handik aurrera, abiada bizian egin zuen aurrera pilotari moduan.

Soldadutza bukatu zuenean, sasoiko pilotari onenari desafioa bota zion. Lekeitioko *Zapaterito* zen hura. Desafioa onartu egin zion lekeitiarrak; baina *Mondragones*-ek galdu egin zuen partida.

Edozelan ere, handik bi hilabetera, txapeldun titulua lortzeko partidua jokatu zuen

*Donostian soldadutza egiten zebilela jokatu zuen aurreneko partida profesionala*

*Hamar urtez txapeldun izan zen 'Mondragones', harik eta Atano III.ak txapela irabazi arte*

Eibarren, *Zapaterito*-ren kontra, jakina; bigarren hartan arrasatearrak irabazi zuen.

Hamar urtez izan zen txapelduna; partidu haiek pilota enpresek antolatzen zituzten, eta ondorioz, emaitzak ez ziren ofizialak. Edozelan ere, pilotarien artean txapelduna zen *Mondragones*.

Baina, hamar urtera, Atano III.a azaldu zen Azkoitian.



JOXE ARRIARAN

Hiru partida jokatu zituzten *Mondragones*-ek eta Atanok txapeldun titulua lortzeko.

Logroñon jokatu zuten eskuz banakako aurreneko norgehiagoka *Mondragones*-ek eta Atano III.ak. Azkoitiarrak irabazi zuen. Handik aurrera, beste hiru partidu jokatu eta

gero eskuratu zuen Atanok txapela. Aurreneko partidua 1926an jokatu zuten, Donostian. 22-19 irabazi zion *Mondragones*-i; bigarren partidua Eibarren jokatu zuten. 22-12 irabazi zuen

Atanok. Hirugarrena Bilbon jokatu zuten. Emaitza: 22-9. 1927ko urtarrila zen.

Juan Bautista *Mondragones* jaioterrian hil zen, 1965eko apirilaren 11n.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko urtarrilaren 23a / 93. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Etxekoak txapeldun aurtengo Arabako Taldekako Bertsolari Txapelketan

UBANE MADERA

Gorbeialdeko taldeak irabazi du 2004ko Arabako Taldekako Bertsolari Txapelketa. Batez ere, aramaioarrez osatutako taldea da Gorbeialdekoa. Hori horrela, Manex Agirrek zera kontatu digu, oso harro dagoela ikasleekin, oso ondo abestu dutelako.

Zilarrezko platera eta poza. Hori xe ekarri zuten aramaioarrek joan den asteburuan etxera Aguraindik, Gasteizko taldeari irabazi diote eta aurtengo taldekako txapelketan. Lau bertsolari aramaioarrez eta urbinar batez osatutako taldea gasteiztarrez osatutako taldea baino hobeto ibili zen. Aramaioko bertso eskolako irakasle Manex Agirreraren esanetan, berehala ikusi zen hori zapatuko saioan.

### PROBA UGARIRI IZAN ZITUZTEN

Edozelan ere, proba ugariri aurre egin behar izan zieten bertsolari gazteek Aguraingo Zerua jate-txean: ofiziotan zortziko txikian eta handian, hamarrekoan, sei-ko motzean... Tartean, pare bat saio berezi ere izan zituzten. Esaterako, puntuka egin behar izan



Joan den zapatuan jokatu zuten lehiaketa Gasteizko taldearen kontra.

zuten, baina mozarrotuta. Eta, era berean, egoera bati bi bertso jarri behar izan zioten. Esaterako, begiak estalita zituela egin behar izan zuen proba hura Andere Arriolabengoak.

Kontuak kontu, azkenean, puntuak batu eta Gorbeialdeko taldea izan zen nagusi.

Talde horretan honakoek hartu zuten parte, Aramaiotik: Manex Agirrek, Iker Agirrek,

Andere Arriolabengoak eta Gillen Agirrek; eta Urbinatik, Josu Ormaetxeak.

Ekitaldia ikusi gura duenak etzi, domeka, dauka aukera, ETBko *Hitzetik Hartzera* saioan eman-

*Gorbeialdeko taldea lau bertsolari aramaioarrez eta urbinar batez osatutakoa da*

*Saioa ikusteko aukera egongo da domekan ETBko 'Hitzetik Hartzera' saioan*

go dute eta. 14:45ean hasiko da. Bestalde, Manex Agirrek adierazi digu martxora arte ez dutela egingo ekitaldi esanguratsurik. Hain zuzen ere, martxoan jokatuko duten Arabako Txapelketa Nagusira begira daudela. Eta aurreratu digu oraingoz, behintzat, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre eta bera duda barik aurkeztuko direla lehiaketa nagusira. Hori bai, gainerakoak kontuztzitza lan zaila izango dela.

## Udaletxeko lanak eta Oletakoak berbegai bilkuran

U.M.

Eguaztenean, ohiko batzarra egin zuen udal taldeak. Landu beharreko gaien artean, Oletako bidea zabaltzeko lanak izan zituzten aztergai; baita Udalean praktikak egiteko aukera ere. Horrez gainera, udaletxeko lanak esleitzea landu zuten.

Oleta auzoari dagokionez, hango kaleak zabaltzeko lanen bigarren zatia izan zuten berbegai zinegotziek eguazteneko batzarrean. Horrez gainera, eta herriko ikasleei begira, erabaki behar zuten ea posible den haiei aukera ema-

tea Udalean praktikak egiteko.

Horrez gain, udaletxeko barru aldea berritzeko lanak zein enpresari esleitu aztertu zuten. Udalak lehenbailehen hasi nahi ditu lanok. Diputazioari dirulaguntza eskatzea ere aztertu zuten. Hain zuzen ere, Arrasate Musikalera doazen ikasleendako eta Trikitixa Elkartearendako izaten diren laguntzak. Era berean, Azkoaga eta Arexola auzoekin lotutako gai bana ere aztertu zuten.

Edozelan ere, albistea idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zein erabaki hartu zituzten zinegotziek.



### Munduari buelta bizikletaz

Datorren barikuan, hilak 30, bidaiekin lotutako hitzaldia egongo da. Hain zuzen ere, Eneko Etxebarrieta gasteiztarak, munduari buelta eman diola eta, bidaian bizitako izandakoak kontatuko ditu. Eneko Etxebarrietak 46.000 kilometro egin ditu bizikletaz 1.420 egunean, eta 35 herrialdetan ibili da. Elza Miyuki lagunarekin ibili da munduan zehar.

Hitzaldia kultura etxean izango da, 22:00etan hasita. Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta du ekimena. /U.M.

## Hurrengo liburua agoten gainera izango da

Kultura etxea jendez bete zen joan den eguenean Toti Martinez de Lezea idazle arabarraren berbaldia entzuteko. Mitologiaren gainean berba egin zuen. Ondo, gainera. Behintzat, txalo zaparrada artean bukatu zuen hitzaldia. Eta jendea gustura asko joan zen etxera. Idazle ezagunak esandakoen artean nabarmendu daiteke, besteak beste, gizakiak gurtu zuen aurreneko izatea emakumezkoa izan zela, jainkosa, beraz. Hala

erakusten dute aurkitutako irudirik zaharrenek.

Era berean, eta hitzaldian esandakoez gain, Toti Martinez de Lezeak aurreratu zigun laster argitaratuko duela beste liburu bat; eta Nafarroako agoten gainera izango dela. Horrez gainera, liburu gehiago idazteko material asko daukara ere kontatu zigun. Hor-taz, badirudi datozen urteetan ere haren liburuekin gozatzeko aukera izango dugula.



U.M.

Mitologiaren eta kristautasunaren gainean luze berba egin zuen idazleak.

## BOTEPRONTOAN/ Eusebio Arriolabengoa · Izarra elkarte gastronomikoko kidea

*“Pentsatu genuen geuk ere elkarte bat egin behar genuela Aramaion; herriko lehenengoa izan zen”*

Izarra elkarte gastronomikoa ezaguna da Aramaion; akaso ezagunago egingo zaizue “mutilzaharrak” elkartearen esaten badugu. Izan ere, horixe da elkar-tearen berezitasunetako bat: sasoi batean mutilzaharrez osatutakoa zela. Elkarte kidea Eusebio Arriolabengoari eskatu diogu halako kontu gehiago esateko:

### Egia da izenaren kontua?


Ez ba. Izen hori mediku batek ipini zuen. Hura ere xelebrea baino xelebreagoa zen. Elkartearen egiten genbiltzala, izena ipini ezinda, mediku hark (Garcia-rena medikuak) “mutilzaharren elkarte” izena ipintzeko esan zuen, esan gura moduan mozkor etxea zela elkarte hau. Eta hori gezurra zen. Halako batean, norbait Izarra izenarekin etorri zen, eta denok pozik.

### Dena dela, gehienak mutilzaharrak ziren, hala?

Bai, hori bai. Orain, ezkonduak ere badaude, baina askoz gehiago dira ezkongabeak.

### Zela jaio zen elkarte?

Sasoi hartan, Arrasaten nenbilen lanean, Zerrajeran. Eta lagun mordoa nituen. Haiekin eta nire lagunekin ibiltzen ginen elkar-teetan. Eta pentsatu genuen geuk ere elkarte bat egin behar genuela Aramaion. Pentsa



*“Mediku batek ipini zion ‘mutilzaharrak’ izena, esan gura moduan mozkor etxea zela hau”*

ezazu, Aramaioko lehenengoko elkartearen izan zen, 40 bat lagunuen artean egin genuen.

### Zein urtetan eraiki zenuten?

Ez dakit seguru esaten, orain dela 45 bat urte-edo.

### Gaur egun zenbat bazkide zarete Izarran?

70 lagun. Jose Manuel Beitia da presidentea eta Patxi Untzueta idazkaria.

### Tartean emakumezkorik ez dagoela esan didate niri...

Ez, ez dago. Beste elkar-teetan ere ez. Eta niri, behintzat, inork ez dit esan sartu nahi dutela eta halako konturik. Baina, barikue-tan eta zapaturako hementxe ibiltzen dira jokoan, jeneralean gauean; eta norbaiten urtebetetzea-edo denean ere hementxe egiten dute ospakizuna. Bazkide-aren baten senide edo lagun badira nahikoa da...

### Zeuendako bigarren etxea izan-

### go da elkarte, ezta?

Nik neuk urtean birritan-edo afaltzen dut etxean (Gabonetan eta auzoko jaietan). Bestela, hemen egoten naiz, gaixorik ez banago, behintzat. Gaur, adibidez, San Sebastian eguna izanda afari berezia daukagu.

### Akaso zeu izango zara bazkide-rik nagusia?

A! Ba akaso bai. Ni baino zerbait zaharragoak ziren lagunak hil egin dira... Orain arte ez dut horren gainean pentsatu.

### Bazkide izateaz gain, lanen bat ere egiten duzu elkar-terako, ezta?

Azkenaldian bajaran egon naiz, baina, bestela, elkar-terako mandatuak egiten ditut. Denda parean dago, denbora ere badaukat... Barikurako, zapaturako eta domekarako erosketak egiten ditut. Eta harategikoa beste Eusebio batek egiten du; neu Eusebio Arriolabengoa naiz, eta hura Eusebio Bengoa da. (Barreak). Zelan egin daiteke Izarrako bazkide?

Joan direnen edo hil direnen lekuan senideren bat sar daiteke; beste edozein ere sar daiteke, betiere, batzarrak onartzen badu. Horiek guztiak batzarrean erabakitzeak izaten dira.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45*	19:30
19:00	19:15	
21:00	21:25	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deltu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

### BAÑERAREN EMAITZAK

Joan den asteburuan, Bañerako mutilek 12-1 irabazi zioten Diocesanas Nieves Cano taldeari. Neskek, berriz, 4-2 galduta zuten Olabideren kontra. Eta, gainera, kontatu digute nesken taldea justu-justu dabilela, taldeko bi joan egin direlako, lesio kontuengatik... Ea, bada, bihar zorzte hoberik daukaten Izarrako Lan eta Jolas taldearen kontra (11:00etan). Okerrena da kanpoan jokatu beharko dutela. Mutilen taldeak, berriz, Canciller Ayala taldea izango du aurrez aurre (10:00etan).

### ZAPATUKO ZINEMA

Zinemazaleen taldeak otsailarako eta martxorako filmak prestatu ditu. Barikuetan izango dira emanaldiak, 22:30ean. Aurrenekoa datorren otsailaren 13an izango da; hain zuzen ere, Ron Howard zuzendari estatubatuarren *Una mente maravillosa* (A beautiful mind) filma emango dute.

### DOMEKAKO ZINEMA

*Dragones y mazmorras* filma emango dute.

## ERRETRATUZAHARRA

Jostun taldea  
Maala kalearen  
atzeko aldean

**J**ostunen egunen batean-edo (Santa Luzia egunean) ateratakoa da oraingo asteko argazki zaharra. Izan ere, hor agertzen diren emakume guztiak jostunak ziren. Eta gainera, dotore-dotore daude jantzita; horrek erakusten du ospakizunen batean parte hartu zutela egun hartan.

Argazkia 40ko hamarkadako da. Eta neska taldearen atzeko aldean ikusten diren etxeak Maala kalekoak dira, gaur egungo Mondragones kalera begira daudenak, hain justu ere. Oraindik ere zutik daude eraikinok.

Honako emakume hauek azaltzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: Patricia Otadui, Carmen Iñurrategi, Amaia Arregi, Bitori Gallastegi, Primi Uribealzo (irakaslea), Gregori Uribealzo, Maiatxo Larreategi, Espe Altube eta Arantza Gallastegi.

Beheko ilaran honako hauek daude, ezkerretik hasita: Rita Gallastegi, Angelita Isazelaia, Clarita Zeziaga, Milagros Zabalo eta Matilde Huete. Eta



guztien erdian tente dagoena Maritxu Uribealzo da. Ez dugu lortu jakiterik zein den mutikotxo.

Gure berriemaileek kontatu digutenez, sasoi hartan denetarik josten zuten emakume gehienek, ez zegoen-eta gaur egun dagoen beste denda. Itxura denez, ohitura izaten

zen, adibidez, Bergarako jaietarako jantziak estreinatzea, eta oso lanpetuta ibiltzen ziren garai hartan. Beste adibide bat ematearren, jaunartzeetarako jantziak-eta ere egiten zituzten.

Normalean bata bestearen etxera joaten ziren jostera; era berean, emakume askok josten ikasteko

ikastaroetan parte hartzen zuten; ikastaro haiek ere etxe partikularretan izaten ziren.

**Argazkia:** Sara Sagasta.

**Informazioa:** Sara Sagasta, Rita Gallastegi eta Maite Ernabide.

**Urtea:** 40ko hamarkada.

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Portaloia:  
nagusien  
topalekua

**P**ortalioa ez da Mondragoeko beste zona batzuk beste aldatu. Urteek aurrera egiten badute ere, herriko txoko horrek berdin jarraitzen du. Jarlekuak lekuz aldatu eta zorua berria. Izan ere, ez da askoz gehiagorik aldatu. Orain, auto gutxi pasatzen da handik, inguru hori oinezkoendako egin zuten-eta. Nagusien topalekua izan da Portaloia, eta gaur egun, hori ere ez da aldatu.



≈ 1989

Batzuek esaten dutenez, Arrasaten langabeziak gora egiten zuenean, hori igarri egiten zen Portaloian, lepo egoten zen-eta.



2004

Egun, Portaloia ez da langabezia neurtzeko *termometro* aproposa, gazteek ez daukate-eta Portaloian egoteko ohiturarik.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**UGARTE**

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

**Taberna Berri**  
jatetxea

Durana 26  
ARETXABALETA  
Tel.943 79 20 67

gaztemenuak  
preziosoenak

ate baretako jantzi marro  
egin zure aukera



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



PROFESIONAL  
*liberalak*

## AHOLKULARITZA

**ASEGI AHOLKULARIAK**  
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate  
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

**EMUN KOOP. E.**  
Uriburu 9, behea. Arrasate  
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26  
emun@emun.com

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**  
Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate  
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgoe@euskalnet.net

## ABOKATUAK

**LIA ALTUNA  
BEGOÑA LASAGABASTER**  
Iturriotz 15, 1 A. Arrasate  
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

## APAREJADOREAK

**JUAN MARI OSINAGA**  
Zerkaosteta 17 behea  
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09  
zutarri@infonegocio.com

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

**ILE APAINDEGI MISTOA**

**iaran**



Zerrajera 1.  
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian  
zapatuak: 08:00-14:00 / Abuztuan: 1etik-8ra eta 25etik-31ra zabalik

**A** Ile apaindegi mistoa  
Estetika zentroa  
Txaro Carrizo

**U**

**SART**

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60  
943 77 21 58

**BITXORI**  
Ile apaindegia



Erdiko kale 52.  
Tel.: 943 79 88 32

**JADE**  
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

**ILEA**  
UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

*Lore*



Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50  
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR GLARIN BIOTHERM VALMONT

ILE APAINDEGIA

virginia.L

**MISTOA**

Lapurdi 3. Zigarrola  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 65 65



edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida

edertasun gida  
edertasun gida  
edertasun gida